



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko ekainaren 10a

64 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onetsi dezan (3. or.).
- Foru Lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko (4. or.).
- Foru Lege proiektua, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena (14. or.).
- Foru Lege proiektua, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa (16. or.).
- Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (27. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (28. or.).
- Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (28. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiaz da Ilundáin Haritz Berri Fundazioarekiko egungo harreman esparrua azter dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez duela bere egiten NUPeko Gizarte Kontseiluak hartutako erabakia, Tuteran bertaratzeko ikasketa ofizialak jartzea ez-bidekotzat jotzen duena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (31. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legez kanpoko substantzien erabilera dela-eta aurrea hartzeari buruzko beharizanen azterlan-diagnosia egin dezan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoa kentzen laguntzeko jarduketa plana egin dezan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (34. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan osasun arloko genero-desberdintasunei buruz eta horrek familia eta lan bizitza bateragarri egitearekin duen loturari buruz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (35. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat instalatzeko prozedurak geraraz ditzala. Erretiratutako mozioa (37. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinako krisia dela-eta zenbait neurri har ditzan. Erretiratutako mozioa (37. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gudetan adingabeak erabiltzea salatzen du. Erretiratutako mozioa (37. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da langabeziaren ondoriozko babesia eta enpleguari buruzko oinarrizko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan. Osoko Bilkuran izapidatzea (38. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onets dezan

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko maiatzaren 27an hartutako erabakiaren bidez, ondoko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onets dezan".

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onets dezan Nafarroako Gobernuari baimena ematen dion Foru Lege proiektuaren biderapena zuzenekoa eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onets dezan

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 51. artikulua eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Legeak Nafarroako Administrazio Publikoen menpeko Polizia Kidegoen araubidea ezarri zuen.

Maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeak –Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzkoa–, uztailaren 5ko 19/2001 Foru Legeak –Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzen zuena–, eta apirilaren 3ko 8/2002 Foru Legeak –Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa– parte batean aldatu dute aipatu polizia kidegoen araubidea.

Beharrezkoa da testu arautzaile bat, gaur egun Nafarroako Polizia Kidegoetan eragina eta indarra duten lege xedapen guztiak bildu eta modu sistematikoan uztartzen dituen. Horregatik, bada, bidezko da Nafarroako Gobernuari baimena ematea legegintzako foru dekretu baten bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onets dezan.

Artikulu bakarra. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari lau hilabeteko epean, legegintzako foru dekretuaren bidez, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onets dezan.

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babestekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko maiatzaren 27an hartutako erabakiaren bidez, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun baldioduneko epea irekiko da, 2002ko ekainaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babestekoa

ZIOEN AZALPENA

I

Gaur egungo gizarteetan tabakozaletasuna osasun publikoan eragilerik nabarmenatariko bat da. Gainera, gaizkitze eta hiltze tasetan aurrea har dakiekeen artetik zergatikorik garrantzitsua da. Horrez gain, badu berezitasun bat, menpekotasuna sortzen duela hain zuzen ere eta haren sendakuntzak beste droga batzuetarako erabiltzen denaren antzeko ekintza behar du.

Oso zabaldua denez eta eragin handia duenez, gizartearen, osasunaren eta ekonomian kostu handia sortzen du eta beharrezkoa ez den sufri-mendua ere bai. Osasuna lehen mailako balio bat da. Herritarrek halaxe deritzote, banaka eta taldeka, aginte publikoen bidez. Horregatik guztion eginkizuna da osasuna babestu eta sustatzeko neurriak hartzea.

Gaur egun eragozpenak badaude ere, tabakoaren salmenta, publizitatea eta zabalkundea dela eta, gazteengana ailegatzen da. Nerabeen artean, zigarreta eskaria gero eta handiagoa denez, baldintza batzuk ezarri behar dira tabakoaren erabileraren gure herritarrik ahulenen artean zabal ez dadin.

Bestaldetik, zientzia-datu batzuk daude tabakoaren kea dela eta ingurunearen kutsaduraren ondorioz erretzen ez dutenendako dauden arriskuei buruz. Horregatik bidezko da neurriak hartzea herritar haien osasuna babesteko eskubidea gordetzearren, beren eguneroko bizitza arriskurik eta bereizkeriarik gabe egin ahal dezaten.

Liskarra pizten den bakoitzean erretzen ez dutenen osasunerako eskubideak beti ere lehen-tasuna izanzen du erraztaileek tabakoa erretzeko duten eskubidearen gainetik, haien osasunerako eskubidea urratzen ahal deneko toki edo inguruabar guztietan. Adingabeen babesa zuzenbidezkoa ez ezik beharrezkoa ere bada, legeak eta etikak agindurik. Osasun zerbitzuek tabakozaletasunaren sendakuntza aztertu behar dute beste edozein osasun arazo bezala. Argibideek eta hezkuntzak bat etorri behar dute gai honen gaineko ikerketekin. Horiek denak arrazoiak dira hurrengo kapituluetan garatzen diren neurriak hartzeko.

Gainera, gaur egun indarra duten lege-xedapenek hutsune garrantziak dituztenek, Europako Batasunak tabakoaren arloko zuzentarau guztiak "litekeen osasunik hobereana" lortzeko bideratzen ditu. Helburu horixe du hemen aurkezten den legeak. Beraz, Lege positibo bat da, eskubiderik murrizten ez duena, osasuna babestu eta sustatzen duena baizik. Are bidezkoago da gainera Nafarroako Parlamentuak 2001eko apirilaren 17an Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana onetsi zuenez geroztik. Haren ondorioa da gaurko Legea.

II

Espainiako Konstituzioko 43. artikulua osasuna babesteko eskubidea aitortzen du eta xedatzen agintari publikoei dagokiela osasun publikoa antolatu eta zaintzea aurreneurrien bidez, osasun arloko hezkuntza sustatuz.

Osasunari buruzko 14/1986 Legeko 25. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatzen dudenez, osasunari arriskua edo kaltea dakarkioten ondasunak erabili eta garraiatzeko debekuak eta gutxieneko baldintzak ezarri behar dira. Artikulu haren eta Erosle eta Erabiltzaileen aldeko uztailaren 19ko 26/1984 Legeko 3. artikuluko 2. idatz-zatiaren babestean, martxoaren 4ko 192/1988 Errege Dekretua eman zen, tabakoa saldu eta erabiltzeko eragozpenei buruzkoa, herritarren osasuna babesteko. Errege Dekretu horrek, 1. artikuluan, adierazten du tabakoa pertsonen osasunerako kaltegarria dela eta beraz beti ere erretzen ez dutenen osasunerako eskubideak lehentasuna izanen duela erretzaileek tabakoa erretzeko eskubidearen gainean, haien osasunerako eskubidea urratzen ahal deneko toki edo inguruabarretan.

Urte berean, Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Legeak, berariaz tabakoaz ari dela, telebistaren bidezko publizitatea debekatzen du, bai eta tabakoa saldu edo erretzea debeku den tokietan ere. Halaber, iragartzen du erregelamenduen bidez eragozpenak ezarriko dituela pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko.

Xedapen horien arabera, eragozpenak eta murrizketak ezarri dira. Kasu batzuetan, Europako Batasuneko zuzentarau batzuk, hala nola, 89/552/EEE Zuzentaraua, Espainiako legeriara egokitzeko. Berriki 98/43/EE Zuzentaraua saio bat izan da tabakoaren publizitatearen eta babes komertzialaren eragozpenen arloan arautegi bateratu bat egiteko. Ekimen honek huts egin du, Europako Auzitegiak baliogabetu baitzuen, 2000ko urriaren 5eko epaiaren bidez. Hala ere, haren ondorioz, gaur egun beste zuzentarau bat prestatzen ari da arlo honetaz, epai hartan eginiko gogoeta eta ñabardurak bilduko dituena.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, arau hau ematen da Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikuluko 18 eta 25. idatz-zatiek, 53. artikuluko 1. idatz-zatiak eta 56. artikuluko 1.d) idatz-zatiak Nafarroako Foru Komunitateari ematen dizkioten eskumenen arabera.

Eskumen horiek denek, d) idatz-zatian aipatzen denak izan ezik, legegintzarako ahalmena ere biltzen dute.

III

Osasun kontseilariak, urriaren 11ko 259/1999 Foru Aginduaren bidez, Tabakoari buruzko Foru Plan bat prestatzeko Aditu Batzordea sortu zuen. Haren kideek esparru eta diziplina askotako langileen talde bat osatu zuten. Haren egiteko nagusia izanen zen Nafarroa osorako Tabakoari buruzko Foru Plana prestatzea, aginte publikoek egin ditzaketen ekintza guztiak biltzen dituen, Nafarroako eragile guztiek parte hartuta.

Egitekoa eginez, Batzordeko kide guztiak ados zeudela, Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plan bat osatu eta onetsi zen, 2000ko maiatzaren 15ean Nafarroako Gobernura igorri zena, hasiera batez onets zezan. Haren helburua zen epe bat irekitzea Osasun Departamentua Foru Komunitateko Administrazioiko Departamentuen eta Komunitatean ukituriko erakunde eta entitateen artean zabaltzea, egokitzat jotzen zituzten ohar eta iradokizunak egin zituzten. Zabaldur ondoren, aurkezturiko alegazioak aztertutik, beste Plan bat prestatu zen, Nafarroako Gobernuak urte bereko irailaren 18an onetsi zuena. Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Parlamentura igortzea, bertan onets zedin.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2001eko apirilaren 27ko bilkuran Plana aztertutik, onetsi egin zen, proposamen gutxi batzuk bildurik.

Plan horretako aurreikuspenak gauzatu eta abian jartzeko, maiatzaren 28ko 127/2001 Foru Dekretuaren bidez, Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana zuzendu eta koordinatzeko organoak sortu ziren. Horrela Plana burutzeko neurriak hartzen ahalko ziren.

Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Planean tabakozaletasunaren arazoak, Nafarroako egoera eta erantzunak aztertzen dira, baita 2000-2005 urteetarako egitekoen plan bat ere. Egitekoen plan horretan orotariko kontuak ageri dira, hala nola, helburuak, egitekoen irizpideak, jokabideko neurriak, baliabideak, argibide eta ebaluazio sistemak eta onesteko prozesuko egutegia. Horrekin batera berariazko programa batzuk zehazten dira, adibidez, erretzen hastea eragozte, erretzeari uzten laguntzea eta kerik gabeko guneak sortzea, Planeko hiru ardatz nagusiak baitira.

Labur bildurik, Planaren ondorioz, denetariko neurri eta ekintzak asmatu dira, osasun arazo bat batera aztertzeko, oso ñabardura ezberdinak baititu, gizarte, kultura eta ingurune inguruabarren arabera. Haien arabera ez da erretzaileen kontra jo nahi, erretzaileak gehitzen dituzten kontuen kontra baizik. Abiapuntu batzuk ezarri nahi dira

erretzaileen eta kearen ondorioak paraitzen dituzten ez-erretzaileen elkarrenganako begirunean oinarrituriko bizikidetzak lortzeko.

Ekintza horiek denak oso modu ezberdinetan burutuko dira, baina nabarmena da beharrezkoa dela lege bat ematea ekintza guztiak bildu eta ukituriko erakunde guztiek koordinaturik ekiteko abiarutako eta ekitaldi publikoen adostasunezko oinarritako balio duena.

IV

Foru Lege honek Atariko Titulu bat eta hiru Titulu dauzka. Hona hemen hauen izenburuak: I. Aurreneurriak eta osasuna sustatzeko ekintzak, II. Babesteko ekintzak eta III. Zehapen araubidea.

Bereizketa horren funtsa da batetik osasuna sustatzeko ekitaldiak eta babestekoak nabarmen-tzea, Foru Lege honetako 2. artikuluko definizio doktrinalen arabera.

Atariko Tituluak orotariko xedapen batzuk biltzen ditu, hala nola, Legearen xedea, irizpide zuzentzaileak eta Foru Lege osoko ardatzak osatzen dituzten definizioak. Irizpide zuzentzaileen artetik aipatzekoa da tabakoa erretzea osasun arazotzat hartzen dela, tabakoa erretzeari edo haren balizko ondorioei aurrea hartzeko ekitaldiek lehentasuna izanen dutela eta gizartearen adostasuna erdietsi behar dela neurri babesleak hartzeko, gehienbat atez barrukoak.

I. Tituluak gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna sustatzeko ekitaldiak biltzen ditu, alegia, tabakoa erretzera bultzatzen duten gizabanakoen, gizartearen eta kulturaren ohiturak aldatzeko jokatzeak eta jarduketak multzo dinamikoak. Beste neurri batzuk argibideak, osasunerako hezkuntza eta osasuna hobetzeko ekitaldiak sustatu eta piztea dira. Haren lau kapituluetan barrena, orotariko helburu batzuk aipatzen dira (I. Kapituluak) programak eta jarduketak bultzatu, garatu, sustatu, koordinatu, kontrolatu eta ebaluatzekoak. Osasuna sustatzeko ekitaldiak ere biltzen dira (II. Kapituluak), alegia, osasunerako argibide, sustapen eta hezkuntza eta ikerketa. III. Kapituluak osasun laguntza ukitzen du, alegia, tabako menpekotasuna sendatzeko ekitaldiak. IV. Kapituluak Administrazio Publikoen eskumenak aztertzen dira. Udaleri eginkizun berezia ematen zaie kasuan kasuko mugapean eta Nafarroa osorako plangintza eta jarduketa berariazkoak Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren esku uzten dira. Atal honetan Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Planeko aldi guztiei ekiteko egitura aurreikusten da eta Foru Lege honetako jarduketak egiteko finantzaketa ere bai.

III. Tituluak babesteko jarduketak ukitzen ditu, hots, neurri eta jarduketa murriztaile guztiak. Haien xedea da pertsonen osasunerako eskubi-dea aldeztzea eta herritarrak tabakoaren publizitate, zabalkunde eta babesaren aurka defenditzea. Bere edukiagatik, I. Kapituluak tabakoaren iragarriak eta babesa murrizteko moduan datza. II. Kapituluak tabakoa saldu eta erretzeko toki eta uneei dagokie.

Azkenik, III. Tituluak zehapen araubidea biltzen du. Arau-hausteen sailkapena ezartzen du. Arau-hauste horiek, aplikatzekoa den prozeduraren arabera, kasuan kasuko dosierra ireki ondoren, zehapena jaso dezakete.

Bukaeran xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta azkeneko batzuk biltzen dira.

ATARIKO TITULUA Orotariko xedapenak

1. artikulua. Legearen xedea.

Foru Lege honen xedea da jarduketa batzuk ezartzea osasuna babestu eta sustatu eta tabakoa erretzen hasteari aurrea hartzea.

2. artikulua. Definizioak.

Foru Lege honetarako definizio hauek ematen dira:

a. Aurreneurria: tabakoa erretzera bultzatzen duten gizabanako, gizarte eta kulturaren kontuak aldatzeko jokatzeak eta jarduketak multzo dinamikoak,

b. Babesa: arau eta jarduketa murriztaileak. Haien helburua da pertsonen osasunerako eskubi-dea aldeztu eta herritarrak tabako-erretzearen zabalkundearen aurka babestea.

c. Sustapena: argibideak, osasunerako hezkuntza, zerbitzuak eta baliabideak erabili eta beste modu batean bideratzeko neurriak eta herritarren osasuna hobetzeko jarduketak sustatu eta piztekoak.

d. Tabakoa: erre, arnastu, miatzatu edo mamurtzeko produktu guztiak, tabakoz eginak badira, hein batean edo osorik.

3. artikulua. Irizpide zuzentzaileak.

Irizpide hauek etorriko dira bat Nafarroako Administrazio Publikoek tabakoari buruz egiten dituzten jarduketekin:

a. Tabako-erretzea osasun arazotzat jotzea.

b. Ohitura osasungarriak bultzatzea.

c. Tabakoa erretzeari edo haren balizko ondorioei aurrea hartzeko ekintzak lehenestea.

d. Foru Komunitateko hezkuntza, osasun eta gizarte sareetan tabakoari buruzko ekintzak osatzea.

e. Gizartearen adostasuna lortzea neurri babesleak hartzeko, bereziki atez barruan.

I. TITULUA

Gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna sustatzeko ekintzak

I. KAPITULUA

Orotariko helburuak

4. artikulua. Orotariko helburuak.

Nafarroako Administrazio Publikoek, zeinek bere eskumenak erabiliz, garatzen dituzten programak sustatu, garatu, bultzatu, koordinatu eta kontrolatzeko ekintzak bideratu dituzte helburu hauek lortzeko:

a. Herritarrei jakinaraztea tabakoak dauzkan droga eta gai kaltegarrien eta haien ondorio eta arriskuen berri, baita osasunaren gainean duten eraginaren berri ere.

b. Osasunerako hezitzea, ohitura osasungarrirei eutsiz erretzera bultzatzen duten jarreraren aurka.

c. Erretzean eragina duten gizarte, kultura eta ingurunearen arloko egoerak aldaraztea.

II. KAPITULUA

Osasuna sustatzeko eta gaixotasunei aurrea hartzeko ekintzak

5. artikulua. Argibideak

Nafarroako Gobernuak argibide hauek emanen ditu erretzeari aurrea hartzeko:

a. Erretzearen ondorioei buruzko argibide ekitaldiak garatuko ditu, jarrerak eta ohiturak aldatzeko, eta herritarrei erraztasuna emanen dizkie baliabideen gaineko argibideak eskuratzeko.

b. Tabakoaren joera, ohitura, inguruabar eta ondorioak atzemateko argibideetarako eta zainketa epidemiologikorako sistema egokiak erabiliko ditu, aurreneurriak ongi planifikatzeko.

c. Osasun, hezkuntza eta lan arloetako erabil-tzaile eta langileei tabakoaren ondorioei buruz argibide eguneratuak emanen dizkie, baita merkataritzako sektoreei ere.

6. artikulua. Osasuna sustatu eta osasunera-ko hezitzea.

Nafarroako Gobernuak ekintza hauek eginen ditu osasunerako hezkuntzaren arloan eta erretzeari aurrea hartzekoan:

1. Erakunde eskudunekin batera erretzeari aurrea hartzea bultzatuko du ikastetxeetan, hezkuntzaren eta osasunaren sustapenaren arloetan.

2. Toki entitateekin batera arituko da erretzeari aurrea hartzeko udal planak prestatzeko, osasunaren sustapena abiapuntu.

3. Bestelako entitate edo taldeen ekinbideak bultzatuko ditu osasunerako hezkuntzan eta erretzeari aurrea hartzeko arloan.

4. Erakunde eskudunekin batera, osasun zientzietako, maisu-eskoletako eta lan arriskuei aurrea hartzeko arloko ikasleak eta eskuarki gazteekin lan egiten duten langile guztiak prestatuko ditu erretzeari aurrea hartu eta gaixotasun hori sendatzeko gaietan.

7. artikulua. Ikerketa.

Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen dituen azterlan eta ikerketa proiektuak bultzatuko ditu tabako menpekotasunari buruz.

III. KAPITULUA

Osasun laguntza

8. artikulua. Orotariko helburuak.

Nafarroako Foru Komunitatean tabakozale-tasuna sendatzeko eginen diren ekintzek osasun zerbitzuetan erretzetik gelditzeko laguntza eskatzen dutenendako sorospena bermatzea izanen dute xede.

9. artikulua. Jarduteko irizpideak.

1. Erretzeari uzteko programak garatzen dituzten zerbitzuak irizpide hauei jarraituz arituko dira:

a. Tabakoaren ondoriozko osasun arazoak gehienbat erkidego bakoitzean aztertuko dira, programak banatzerakoan berdintasun irizpideak erabilita.

b. Erretzeari Uzten Laguntzeko Programaren bidezko sorospena osasun sare publikoko laguntza maila guztietan bermatuko da eta eragin mesedegarria frogatua duten sendagaiak hartzeko aukera bilduko da, erregelamendu bidez ezar-tzen diren baldintzetan.

c. Eskaintzak eskuragarri, profesional eta diziplina artekoa izan beharko du. Gainera, jarreraren gaineko ekintzetan eta sendagaietan oinarrituko

da eta talderik ahulenei, bereziki, nerabeei eginen die kasu.

10. artikulua. Laguntzaren antolamendua.

Erretzeari uzteko laguntzeko programen garapena bi laguntza mailatan osatuko da.

A. Lehenengo maila. Osaera:

- a. Oinarrizko osasun laguntzako taldeak.
- b. Lan osasuna eta lan arriskuei aurrea hartzeko zerbitzuak.

B. Bigarren maila. Osaera:

- a. Emakumeei laguntzeko zentroak.
- b. Adimen Osasuneko zentroak.
- c. Laguntza espezializatua eta gure Komunitateko bestelako zentro eta zerbitzu berariazkoak.

11. artikulua. Espetxeak.

Nafarroako Gobernuak, espetxeetan eskumena duen erakundearekin eta Foru Komunitateko espetxeetako osasun zerbitzuekin batera, erretzeari uzten laguntzeko programak abiatzen ahalko ditu.

12. artikulua. Lantokiak.

Nafarroako Gobernuak kontuan hartuko du erretzea lanpostuko arriskuak ebaluatu eta langileen osasuna zaintzerakoan.

IV. KAPITULUA

Administrazio publikoen eskumenak

13. artikulua. Nafarroako Gobernuaren eskumenak.

Indarra duten legeek ematen dizkieten gainerrako eskumenak ukatu gabe, Nafarroako Gobernuari dagokio:

- a. Lege honen xede diren arloei loturiko behar, eskari eta baliabideak orokorrean planifikatu eta ebaluatzea.
- b. Foru Lege honetako arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioek eta erakunde publiko edo pribatuek egin behar dituzten eginkizun, jarduketara eta zerbitzuak koordinatu eta antolatzeari.
- c. Ikuskatzeko eta zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea, Lege honetako baldintzetan.
- d. Osasun eta hezkuntza arloetako langileen dako prestakuntzarako diziplina arteko programak bultzatzea, baita zuzenean edo zeharka erretzeari loturik dauden beste langileendako ere. Horretarako, beren baliabideak ez ezik beste Administrazio

Publikoen eta prestakuntza proiektuak gauzatzen dituzten erakunde edo elkarteen laguntza ere izanen dute.

e. Beste Administrazio Publiko batzuekin batera, Lege hau zuzentasunez betetzeko behar diren neurri guztiak hartzea.

14. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Indarra duten legeek ematen dizkieten gainerrako eskumenak ukatu gabe, Nafarroako toki entitateei dagokie:

- a. Kasuan kasuko mugapean erretzeari buruz egiten diren berariazko programak zuzendu eta beste programa batzuekin koordinatzea.
- b. Ikuskatzeko eta zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea, Lege honetan aurreikusirik baldintzetan.

c. Osasunerako hezkuntzaren arloan hezkuntza eta osasun sistemekin lankidetzan aritzea.

15. artikulua. Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana.

Nafarroako Gobernuak Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana zuzendu eta koordinatzeko organoen antolamendua eta funtzionamendua ezarriko du, haren aurreikuspenekin bat, Foru Lege honetan eta hau garatzeko ematen diren xedapenetan xedaturikoari lotuz.

16. artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Gobernuak urtero Lege honetan aurreikusten diren ekintzak egiteko behar den dirua sartuko du Foru Komunitateko aurrekontuetan.

II. TITULUA

Osasuna babesteko ekintzak

I. KAPITULUA

Tabakoaren iragarkien eta zabalkundearen eragozpenak

17. artikulua. Tabakoaren iragarki, zabalkunde eta babeserako baldintzak.

1. Estatuko legeetan, haren eskumenen barruan, xedaturikoa ukatu gabe, Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabakoaren zabalkundea, bai zuzenekoa, bai zeharkakoa, baimenduriko saltokietan aurkezten diren produktuena izan ezik.

Tabakoaren publizitatea eta hedabideen bidezko beste edozein iragarki arlo honetako Estatuko legeen menpe egonen dira.

Hala ere, ezin argitaratuko da tabakoaren iragarkirik bakarrik edo gehienbat haur edo gazteen-dako diren paperezko egunkari eta aldizkarietan.

2. Nafarroako Foru Komunitatean pertsona fisiko edo juridikoek ezin babestuko dute kirolik, kultur ekitaldirik edo bestelakorik, haien jarduera nagusia edo ezaguna tabakoa ekoitzi edo saltzea bada, horrek berekin badakar babes hori edo tabakoarekin loturiko marka, ikur edo irudiak ageritaraztea.

3. Artikulu honetako debekuak zuzeneko edo zeharkako iragarki guztiei dagozkie, baita beren izen, marrazki, aurkezpen edo beste edozein arazoirengatik tabakoaren zabalkunde ezkutua egin dezaketen gauzaki edo produktuen iragarkiei ere.

4. Foru Lege honetako kontzeptuak:

– Publizitatea: pertsona fisiko edo juridiko batek, publiko zein pribatu, merkataritzan, eskulangintzan edo edozein lanbidetan jardutean, tabakoaren edozein produkturen zuzeneko edo zeharkako zabalkunderako edozein iragarki.

– Tabako saltokiak: tabakoaren produktuak saltzen direneko edozein toki.

– Babes komertziala: gertaera, jarduera edo gizabanako bati laguntzeko edozein ekintza publiko edo pribatu, haren helburua edo zuzeneko edo zeharkako ondorioa tabakoaren produktu baten zabalkundea egitea bada.

18. artikulua. Zabalkundea.

1. Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabakoaren zabalkundea, hala nola, feria, lehiaketa, erakusketa, azoka eta antzeko ekitaldietan, edozein tokitan delarik ere.

2. Tabakoa ekoitzi, landu eta banatzen deneko tokietarako bisitetan ezin eskainiko zaie 18 urtetik beheitikoei.

II. KAPITULUA

Tabakoa saldu eta erretzeko eragozpenak

19. artikulua. Tabakoa saltzeko eragozpenak.

1. Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabakoa, haren produktuak, haren produktu-mul-tzoak edo haren imitazioak dohainik edo diru truk 18 urtetik beheitikoei saldu, hornitu edo saltzea.

Tabakoa edo haren produktuak saldu edo hornitzen diren toki guztietan afixak paratu beharko dira, ikusgai, produktu haietatik gertu, debeku hori adierazten dutenak.

2. Tabakoa eskuz edo makina automatikoen bidez saltzen ahalko da. Salmenta makina auto-

matikoen bidez egiten bada, hura betiere saltokiaz arduratzen duen batek ikusi beharko du. Horrek saltokiaren kudeaketaren erantzubeharra bere gain hartuko du. Makina horien aurreko aldeko azalean, ikusgai, adierazi beharko da 18 urtetik goitikoek debeku dutela tabakoa erostea.

3. Toki hauetan debeku da tabakoa saldu eta hornitzea.

a. Nafarroako erakundeetan eta Nafarroan dauden Administrazio Publikoetan eta hauen erakunde autonomoetako zentro eta bulegoetan.

b. Osasun eta gizarte zentroetan, gizarte zerbitzuetan eta haien bulegoetan.

c. Ikastetxeetan.

d. Kirolak egiten ahal diren tokietan.

e. Adingabeak hartu edo jolasteko tokietan.

f. Kale eta errepedeetan.

20. artikulua. Salmenta makinak.

Nafarroako Gobernuak sistema berriak sartzeko neurriak bultzatuko ditu adingabeek gero eta zailago izan dezaten salmenta makinaren bidez tabakoa erostea.

21. artikulua. Tabakoa erretzeko eragozpe-nak.

1. Erretzen ez dutenen eskubidearen lehentasuna.

Erretzen ez dutenen osasunerako eskubideak lehentasuna izanen du erretzeko eskubidearen gainean tabakoa erretzeak haiei kalte egiten die-nean.

2. Debeku da erretzea:

A. Osasun eta gizarte zentro, zerbitzu eta bulegoetan.

B. Gizarte zerbitzuetako zentroetan.

– 18 urtetik beheitikoendako gizarte laguntza-ko zentroetan.

– Zaharrendako gizarte laguntzako zentroetan.

– Ezinduendako gizarte laguntzako zentroetan.

C. Haurrak eta gazteak jolastu eta aisialdian egoteko atez barruko tokietan.

D. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan.

E. Unibertsitateetan edo adindunendako ikas-tetxeetan.

F. Atez barruko kiroldegietan.

G. Irakurketa, mintzaldi, erakusketa, museo edo antzeko kontuetarako erabiltzaile gauztiendako geletan.

H. Antzokietan, zinemetan eta atez barruko bestelako ikuskizunetan.

I. Administrazio Publikoetan langela eta bulegoetan eta jendearekin zuzenean harremak izateko guztietan.

J. Haurdunek lan egiten duteneko edozein lantokitan.

K. Tabakoaren kaltea eta industri kutsagaiak nahasteagatik langileen osasunerako arrisku handiena dagoeneko tokietan.

L. Bi pertsonak edo gehiagok partekatzen dituzten atez barruko lantokietan.

LL. Atez barruko dendetan.

M. Autobus edo tren geltokietako eta aireportuetako itxarongeletan.

N. Jendea taldeka garraiatzeko edozein ibilgailutan, delarik hiri barrukoa, delarik hiri artekoa, ikasleak garraiatzeko ibilgailuak barne eta 18 urte-tik behetikokoak edo eriak garraiatzeko osorik edo hein batean garraiatzeko erabiltzen diren guztiak barne.

O. Elikagaiak egin, eraldatu, maneiatu, prestatu edo saltzen diren toki guztietan, elikagaiak jatekoetan izan ezik. Horietan, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, erretzaileendako eta ez-erretzaileendako eremuak bereiziko dira.

P. Igogailuetan eta airetze gutxiko toki txiki-tan, pertsonak erabiltzekoak badira, instalazio publiko eta pribatuetan.

Q. Erregelamendu bidez zehazten diren tokietan, atal honetan aipaturikoen antzekoetan.

3. A, B, E, F, H, I, J, L, LL, M eta O idatz-zatietan aipatzen diren tokietan, espresuki erretzeko guneak egon daitezke, baldin eta bermatzen bada bi gune izanen direla, elkarrengandik bereziak, bata zerbitzuak darabiltzatenendako eta bestea toki, zerbitzu edo dendako langileendako. Bereizketa hori bermatzerik ez badago toki guztian debeku izanen da erretzea.

4. Behin-behineko eragozpenak egokitzen ahalko dira aldi baterako atal honetako kasuetan. Hala ere, erretzaileendako guneek betebeharrak bete beharko dituzte:

a. Argi eta garbi bereizirik egotea eta airetze sistema egokiak edukitzea.

b. Erretzaileendako nahitaezko pasabideetan edo itxarongeletan ez egotea.

c. Non dagoen argi eta garbi adierazirik egotea.

Betebehar horiek betetzerik ez badago toki osoa kerik gabekoa izanen da.

5. 2. idatz-zatian aipatzen diren tokien artean ez dira izanen ostalaritzako tokiak, haietan egon arren, baldin eta 3. idatz-zatian aipatzen diren betebeharrak betetzen badituzte. Bestela kerik gabekoak izanen dira.

6. Erretzeko debekua duten toki guztiek erregelamendu orriak izanen dituzte interesatuen esku.

22. artikulua. Seinaleak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren toki, bulego edo eremu guztietan erretzeko debekua ikusgai eta ongi seinalatua izanen da.

23. artikulua. Kerik gabeko guneak.

Pertsonak elkartzen diren gela, esparru, zentro edo denda publiko edo pribatu guztiak izanen dira kerik gabeko guneak, baldin eta tabakoaren produktuen iragarkiak, erretzea eta salmenta bazterturik badaukate. Horietan bakarrik erretzeko tokietan erretzen ahalko da, halakorik bada.

Jendearendako zentro edo denda baten titularrak, haren erabilera edozein delarik, debekua ematen ahalko du bertan erretzeko, aldez aurretik adieraziz gero, erabiltzaileek jakin dezaten.

24. artikulua. Kerik gabeko zentro edo ekitaldiak.

1. Osasun Departamentuak zentro, denda edo ekitaldi bat "kerik gabeko zentro/jardueratzat" jotzen ahalko du hartzen duen toki guztian debeku bada tabakoa iragarri, saldu edo erretzea.

Adierazpen hori kanpoko aldean ikusgai izanen da, erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Osasun Departamentuak pizgarriak emanen ditu zentro, zerbitzu edo denden titular edo arduradunen adierazpen hura eska dezaten.

3. Prestakuntza, zabalkunde, zientzia eta antzeko ekitaldi guztiek, horietan pertsonak elkartzen badira eta osasunaz edo etorkizunean izan litezkeen bestelako ekitaldiez arduratzen badira, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak hartuko badituzte, aldez aurretik kerik gabeko ekitalditzat jo beharko dira edo kerik gabeko jotzen diren zentro edo dendetan egin.

III. TITULUA Zehapen araubidea

I. KAPITULUA Orotariko xedapenak

25. artikulua. Organo eskudunak

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean aipatzen diren osasun agintariak, zehapenak ezartzeko ahalmena dutenak, dira eskudunak Foru Lege honetan sailkatzen diren zehapenak ezartzeko.

Foru Komunitateko Administrazioa aritzen ahalko da udalen ordeztoki araubideari buruzko legeetan aipatzen diren kasuetan, betebeharrak beterik.

26. artikulua. Erantzukizuna duten subjektuak.

Foru Lege honetan biltzen diren egite edo ez-egiteetan erortzen diren pertsona fisiko edo juridikoek dute erantzukizuna arau-hausteetan.

Egin edo ez egiteagatik langileek edo orotariko bezeroek arau-hausteak ahalbidetu edo onartzen dituzten entitate, denda, enpresa edo zerbitzuen titularrek eta haien menpekoek erantzukizun solidarioa izanen dute.

27. artikulua. Ikuskaritzak.

1. Administrazioako funtzionarioek, behar bezala kreditaturik, egiten ahalko dituzte ikuskaritzak. Funtzionario horiek eginkizun horietan jardutean agintaritzaren agentetzat joko dira.

2. Entitate, denda, enpresa edo zerbitzuen titularrak eta haien ordezkariak behartuak egonen dira ikuskaritzan diharduten funtzionarioei sartzeko uztera, eginkizun horietan aritzeko behar bezala kreditaturik egonez gero. Eginkizun horiek betetzeko behar duten lankidetzak eman beharko diete.

3. Ikuskaritzaren ondorioa akta batean adierazi beharko da.

4. Eginkizun horietan aritzean, ikuskaritzako agenteek agintaritzak eskudunaren laguntza edukitzen ahalko dute.

28. artikulua. Prozedura.

Tabakoaren aurka aurreneurrien eta osasunaren babesaren arloko arau hausteak zehapen administratiboaren xede izanen dira, zehapen dosierra ireki ondoren.

29. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Lege honetan aipatzen diren arau-hauste arinek sei hilabeteren buruan preskribatuko dute; larriek, urtebeteren buruan; eta oso larriek bi urteren buruan. Preskripzioaldia arau-haustea egiten deneko egunean hasiko da.

2. Halaber, zehapen arinek sei hilabeteren buruan preskribatuko dute; larriek, urtebeteren buruan; eta oso larriek bi urteren buruan. Preskripzioaldia zehapena ezartzen duen ebazpena irimo bihurtu eta biharamunean hasiko da.

II. KAPITULUA Arau-haustek

30. artikulua. Arau-haustek.

1. Tabakoaren aurka gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna sustatu eta babetesko arau-hauste administratiboak dira Foru Agindu honetan aipatu eta zehatzen diren egite eta ez-egiteak, izan litezkeen erantzukizun zibil edo penalak ukatu gabe.

2. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2.1. Arau-hauste arinak:

a. 21. artikuluan tabakoa erretzeko aipatzen den debekua ez betetzea.

b. Lege honetan aipatzen diren eginbehar formalak edo kanpoaldean seinaleak paratzekoak ez betetzea.

c. Agintaritzak eskudunak eskaturik, argibideak edo jakinarazpenak eman edo agertzean atzera-tzea.

d. Lege honetan aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein ez-betetze.

2.2. Arau-hauste larriak.

a. Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.

b. Tabakoaren iragarki eta zabalkunduari buruz 17 eta 18. artikuluetan xedaturikoa ez betetzea, eta 19. artikuluan tabakoaren salmentari eta hornidurari buruz xedaturikoari aurka egitea.

c. Ikuskaritzako zerbitzuei argibiderik edo laguntzarik ez ematea eta gezurrezko argibideak ematea.

d. Lege honetan aipatzen diren betebeharrak, baldintza, eginbehar edo debekuak ez betetzea, artikuluan honetan ezarritako irizpideen arabera, arau-hauste larritzat jo behar bada (oso larritzat jo ezik).

2.3. Oso arau-hauste larriak:

a. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

b. Osasun arloko agintarien edo haien agenteen kontra, kontrolatzen edo ikuskatzen ari direla, bortxa, mehatxuak, mendekuak, desmena edo beste edozein indar mota.

c. Osasu publikoari kalte larria egiten dioten arau-haustekak.

d. Foru Lege honek zehazten dituen betebeharrak, baldintza, eginbehar edo debekuak ez betezea, artikulua honetan ezarritako irizpideekin bat, oso arau-hauste larritzat jo behar bada, bereziki herritarrendako zuzeneko eragina duen nahasmena edo arriskua sortzen badute.

III. KAPITULUA Zehapenak

31. artikulua. Mailak.

1. Lege honetan aipatzen diren arau-hausteen-gatik mota bakoitzari gutxieneko eta gehieneko maila emanez ezarriko dira zehapenak, irizpide hauek erabilita: osasunerako arriskua, nahasmenak gizartean izaniko eragina, eginiko kaltea, zenbat pertsona ukitu dituen, sorturiko arriskuaren iraupena, bidezko ez den moduan irabaziaren zenbatekoa, asmo txarra eta aurreko ohartarazpenak ez betetzea.

a. Arau-hauste arinetarako zehapenak, 50 eurotik 500era bitarteko isunak.

b. Arau-hauste larrietarako zehapenak, 501 eurotik 5.000ra bitarteko isunak.

c. Arau hauste oso larrietarako zehapenak, 5.001 eurotik 500.000ra bitarteko isunak.

2. Larritasun berezia, arau-hauste etengabea edo osasun publikorako eragin larria izanez gero, Nafarroako Gobernuak erabakitzen ahalko du jar-duera aldi baterako bertan behera uztea edo enti-

tateak, dendak, enpresak edo zerbitzuak aldi baterako ixtea, gehienez ere bost urtez.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren kasuetan erabakitzen ahalko da partikularrari edo araua hautsi duen entitateari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eskaturiko dirulaguntza edo sorospen finantzarioa bertan behera utzi edo kentzea.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak urtero eguneratzen ahalko ditu Lege honetan aipatzen diren zehapenen zenbatekoak, estatistikaren arloan eskumena duen organoak ezartzen dituen kontsumorako prezioen indizearen arabera.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Lege honek indarra hartu baino lehen kontrataturiko publizitatea ukitzen duten eragozpenak, tabakoaren iragarki eta zabalkundearenak, ezin aplikatuko dira Lege hau argitaratzen denetik sei hilabete iragan arte.

Bigarrena. Entitateek, dendek, enpresek eta zerbitzuek sei hilabeteko epea izanen dute Lege honen aginduetara egokitzeke, indarra hartzen duenetik hasita. Epe hori bukatzen denean aginduak erabat aplikatzekoak izanen dira.

Xedapen indargabetzailea

Lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indarririk gabe gelditzen dira.

Azken xedapenak

Lehena. Eskumena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Lege hau garatu eta betearazteko behar diren arau guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunera.

Foru Lege proiektua, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko maiatzaren 27an hartutako erabakiaren bidez, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko ekainaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena

ZIOEN AZALPENA

Osasun laguntza kopuruz nahiz kalitatez hobetzeko xede orokorraren barnean ulertu behar da osasun langile fakultatiboendako lanbide karrera-

ren eredu errearen ezarpena, osasun sistema publikoaren esparruan. Horretarako, oinarritzko alderdi batzuk erabili behar dira neurgarri, baita horiek garatu ere. Horietariko bat, prestakuntza jarraitua da, kalitate tekniko-asistentziala hobetzeko norberak egiten duen ahaleginaren adierazlea baita. Bertze bat, berriz, bideak irekitzea da, profesionalek parte hartze handiagoa eta hobeia izan dezaten osasun zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketan. Hirugarrenik, pizgarriak eta bultzagarriak jarri behar dira, ahaleginak modu egokian bideratzeko eta osasun laguntzan lortutako emaitzak saritzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura atxikitako langileen araubide juridikoaren gaineko berariazko arauteriaren barnean, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, bere 34. artikuluan, langileen sustapena bultzatzeko bide ezberdinak ezarri ditu. Zehatz-mehatz, haren d) letrak foru lege batera geroratzen du, lanbide karreran oinarrituriko soldata-pizgarrien ezarpena. Ahalmen hori erabiliz, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen bitartez arautu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboen lanbide karrerako sistema, gero abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu dena.

Foru Lege horretan eta hura garatzen duen araudian, lanbide karrerako sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileei aplikatzen zaie, baldin eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa izan bada Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziatuaren eta Farmaziako lizentziatuaren titulua edukitzea (1. artikulua), baita, Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikirik egonik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua ukitzen duten osasun plangintza, ebaluazio eta ikuskatzailertzan ari diren langileei ere, titulazio horiek eskatu bazaizkie (Hirugarren Xedapen Gehigarria).

11/1999 Foru Legearen Lehenbiziko Xedapen Gehigarriak ezartzen du zilegi izanzen dela foru lege baten bidez finkatzea lanbide karrerako sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko bertze langileei ere aplikatzea, Osasun Sistema Nazionalean edo Nafarroako funtzio publikoan antzeko irizpideak ezartzen badira. Aplikatzeko, betiere negoziatio kolektiboa egin beharko da.

Hartara, foru lege honen bitartez heltzen zaio osasun sistema publikoko bertze profesional

batzuk parekatzeari, Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziatuen eta Farmaziako lizentziatuen gisa berean, eriei laguntza klikiko diagnostiko eta terapeutikoak ematen dizkietenak edo beren ekarpen profesionalarekin guztien osasunaren babesari sostengu nabarmena ematen diotenak, hala nola osasun publikoko albaitariak edo Osasun Zientzietako titulazio ofizialak, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak nahiz Osasun eta Kontsumokoak onartuak, dauzkaten profesionalak. Eta hori horrela da, espezialista horien egitekoak, batetik, sendagile eta botikarienen parekotzat hartzen direlako -eta horrek aipatu Foru Legearen Lehendabiziko Xedapen Gehigarriak aipatzen dituenen barnean sartzen ditu- eta, bertzetik, garrantzizkotzat hartzen direlako osasun sistema publikoaren jarduketeta multzoaren barnean.

Jakitun izanik lanbide karrerako pizgarria ez zitekeela arrotz izan, osasun sisteman, alor klinikoan barik, bertzeak bezain egiteko garrantzizkoak (osasun plangintza, ebaluazio eta ikuskatzailetza) dituzten Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziatu eta Farmaziako lizentziatuendako, beraz, 11/1999 Foru Legeak langile hauek hartu zituen bere aplikazio esparruan, nahiz eta, antolaketa arrazoiengatik eta langile gehienek ez bezalako atxikipen organikoa izateagatik, hirugarren xedapen gehigarriaren bitartez egin zuen. Alde horretatik, foru lege horri osasun jarduketaren bertze zutabe funtsezko bat ahanzi zitzaion, lan osasuna alegia, Osasunari buruzko Foru Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz; berriz ere, antolaketa eta langile gehienek ez bezalako atxikipen organikoa edukitzea izan ziren horretarako arrazoiak, nahiz eta, oraingoan, Nafarroako osasun sistemaren barnean izan.

Horregatik eta foru lege honen bitartez, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari atxikirik egonik osasun plangintzan, ebaluazioan eta ikuskatzailetzan ari diren langileen integrazioari heltzen zaio, titulazioaren aldetik legeak ukitutako gainerako profesionalendako ezarritako baldintza berak betetzen badituzte. Gisa hartara, beharrik gabeko diskriminazioak eragozteko urratsak ematen dira.

1. artikulua. Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak ezarritako lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua zabalduko zaie Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lan-

postua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean aurreikusitako "Fakultatibo Espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan lanpostuaren koadramenduan sartu ahal izateko osasun titulazioetako edozein edukitzea.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen 1. artikulua 2. idatz-zatiko langileak lanbide karrerako sistematik at egonen dira, betiere.

2. artikulua. Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari atxikitako osasun langile fakultatiboek, aitzineko artikuluan sarturik badaude, lanbide karrekako sistema aplikatuko zaie, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eta hura garatzen duten arauetan Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikitako langileendako ezarritako erregelei jarraikiz.

3. artikulua. Foru Lege honek 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorio ekonomikoak, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako erregelei eta prozedurari jarraikiz bakoitzari dagokion maila esleitutakoan.

4. artikulua. Ebaluazio Batzorde hauen eskumena izanen da, lanbide karrerako sistemaren aplikazioa zer profesionali zabaltzen zaien, haien ebaluazioa:

a) Osasunbideari atxikitako langileen ebaluaziorako, atxikipen zentro edo zerbitzuaren arabera dagokion Ebaluazio Batzordeak izanen du eskumena.

b) Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari atxikitako langileen ebaluaziorako, Osasun Publiko, Administrazio eta Osasun Kudeaketako Ebaluazio Batzordeak izanen du eskumena.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bigarrena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Foru Lege hau zuzen bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Foru Lege proiektua, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren bidez, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko ekainaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak Unibertsitateaz landarako irakaskuntzen gaineko eskumenak bere gain hartu zituenetik eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Legeak agindutako irakaskuntza berriak ezarri ondoren aldaketa sakonak izan ditu Hezkuntza Sistemak.

Orduz geroztik Nafarroan aplikatu izan diren politikak gure komunitateko Hezkuntza Sistema-

ren etengabeko hobekuntza lortu beharrez gauzatu dira, helburu bakarra zutela ikasle bakoitzaren prestakuntza ahalik eta osoena eta hobereana izan zedin. Horrez gain ikastetxeen autonomia sakondu eta beren langileak eta baliabideak zehazteko prozesu bat ere abiatu zen, ikaslearen beharrak hobeki ase ahal izateko eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, Ikastetxeetako Partehartze, Ebaluazio eta Gobernamentuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak (LOPEGCE) agintzen duenaren arabera.

Pausoz pausoko eta geroz eta gehiagoko hobetze bide horretan, Nafarroan gauzatu den Hezkuntza Sistemaren kalitatea oso handia izan da, eta horregatik Espainiako beste komunitateentzat ezinbesteko erreferentzia da gaur egun, eta aurreneko ageri da Kalitate eta Ebaluaziorako Institutu Nazionalak erabiltzen dituen indikadore nagusi askotan.

Hori horrela delarik ere, Administrazioak argiro agertu du gure sistema hori etengabe berrikusi, aztertu eta baloratzeko asmoa, lehen hartu neurriak beren efikaziaren arabera ebaluatu eta indardun segitu behar duten ala ez erabakitzeke.

Lege barruti horretan, 2001eko maiatzaren 31n Hezkuntza eta Kultura Departamentuko ordezkariak eta AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF eta FETE-UGT sindikatuek "Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Zerbitzuaren Kalitatea Hobetzeko Ituna" sinatu zuten, irakaskuntza publikoaren gainean, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak. Halaber, ontzat eman zuen "Irakaskuntza Itunduaren Arloan Pausoz Pauso Kalitatea eta Lan Baldintzak Hobetzeko Akordioa", sektore horretako sindikatuek eta enpresa erakundeek 2000ko abenduaren 20an sinatua.

Itun horiek gauzatzeko, beharrezkoa da hainbat neurri aplikatzea, legezko erregulazio bat ere behar dutenak, bai haien edukiagatik eta bai behar duten finantzazioagatik.

Orobat, Ikusirik eskola-adinean dagoen populazioa hazi dela, bai jaiotze tasa igotzeagatik eta bai inmigratioagatik, eta gaurko Hezkuntza Sistema hazkunde horren arabera moldatu behar delarik, irakasle premia etengabe ari da gora egiten eta bai arlo horretako aurrekontuak ere, bide den bezala.

Hori guztia gogoan, eta asmotan diren helburuak iristea errazteko, honako Foru Lege hau onetsi behar da.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru Lege honen helburua.

Hona hemen Foru Lege honen helburuak:

a) Bete dadila Hezkuntza eta Kultura Departamentuko ordezkariak eta irakaskuntza publikoko sindikatuak 2001eko maiatzaren 31n sinatu zuten Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Zerbitzuaren Kalitatea Hobetzeko Ituna, zeina 2004/2005 ikasturtea bukatu arte egonen baita indarrean.

b) Bete dadila Irakaskuntza Itunduaren Arloan Pausoz Pauso Kalitatea eta Lan Baldintzak Hobetzeko Akordioa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak, sektore horretako sindikatuak eta titular eta enpresa erakundeak 2000ko abenduaren 20an sinatua, zeinaren indaraldia 2003ko abenduaren 31ra artekoa baita.

c) Hezkuntza Sistema erregulatzeko beste zenbait neurri hartzea, Lege honetako I. IDATZ. Tituluan ezartzen direnak.

II. TITULUA

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna betetzeko neurriak

2. artikulua. Funtzionario irakasleek eta hezkuntzako ikuskatzaileek borondatezko erretiroa hartzea.

1. Beren borondatez funtzionariotza utzi edo 60 urte pasata eta 28 urteko zerbitzua beteta erretiratzeko diren funtzionarioei (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrek agintzen duenaren arabera), lege horretan zehazten diren baldintzak betetzen badituzte, borondatezko erretiroa saritzeko prima bat emanen die Foru Komunitateko Administrazioak, aipatu xedapen iragankor horretan aurreikusten den sari berezia osatzeko.

2. Erretiroko prima hori jaso ahal izateko, nahitaezko baldintza izanen da delako funtzionarioa 1996ko irailaren 1ean aktiboan egon izana eta orduz geroztik eta etenik gabe aktiboan iraun izana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe baten plantillako lanpostu batean; Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoetako funtzionarioen kasuan eta Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen kasuan, ez da nahitaezko baldintza izanen ikastetxeetako plantilletako lanpostuetan egon izana.

3. Aurreko zenbakietan sari bereziaren eta erretiroko primaren gainean agindu dena, ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legeko lehenbiziko xedapen gehigarriak edo ondorengo arauen batek agintzen duenaren arabera funtzionario bihurtu ziren langileei aplikatuko zaie, eta bai lan kontratueko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko erretiroaren prima zenbatekoa izanen den, Foru Lege honetako I. Eranskinak agintzen du, funtzionarioaren adina, zerbitzu urteak eta kidegoa kontuan harturik.

5. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari urtero borondatezko erretiroaren prima osagarriaren kopurua handitzeko Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile funtzionario eta estatutupekoen soldata igotzeko urtero finkatzen den kopuru berean, itunean ezartzen dena betetzeko eta itunak irauten duen artean.

3. artikulua. Irakasle ez-unibertsitarioen lanpostuak nola hornitu.

Espainia osoko lekualdatze lehiaketarik egiten ez den ikasturteetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Irakasle ez-unibertsitarioen lanpostuak hornitzeko egiten dituen prozeduretan, irakasle kidegoetako kide guztiek izanen dute zilegi parte hartzea baldin eta funtzioz eta organikoki Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mende badaude, azkeneko destinoan zenbat denbora iraun duten kontuan hartu gabe.

4. artikulua. Europako Batasuneko hizkuntzak edukiak eta hizkuntza modalitateak garraiatzeko hizkuntza gisa ezartzea.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza ikastetxe publiko guztietan ingelesa edo Batasuneko beste hizkuntza bat ikas-irakasteko hizkuntza gisa ezartzeko, taldearen tutoreak ematen dituen arlo edo curriculum gaietako batzuetan, horrela hizkuntza horiek hobeki ikas daitezzen. Eduki horiek ingeles espezialitateko edo kasuko hizkuntzako maisu-maistra titularrek emanen dituzte.

2. Nafarroako Gobernuak 2002/2003 ikasturtea bukatu baino lehen, behar diren arauak emanen ditu hizkuntza ereduak ezarpen honen arabera moldatzeko.

5. artikulua. Kreditu gehigarri bat ematen da, 5.461.860 eurokoa, 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko kontusail hauetatik hartzekoa:

400000-41000-1230-421100,
"funtzionarioen soldata finkoak, osotara" 3.085.860 euro

400000-41000-1312-421100” “ordezko lanak egiteko kontratatu langileen soldatak”	1.800.000 euro
400000-41000-1600-421100, “Gizarte Segurantza”	576.0000 euro

6. artikulua. Kreditu gehigarri hori gastu aurrekontu indarduneko 620001-61100-6010-513409 kontusailetik (“aplikaziorik gabeko kreditu luza-tuak”) finantzatzeko da, 5.461.860 euroko kopu-ruan.

7. artikulua. 2003tik 2005era bitarteko ekital-dietan baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari kreditua handitzeko irakasleen gastuari dagozkion kontusailetan, irakasle premia handit-zean sortu den gehigarriko gastua berdindu ahal izateko. Premia hori, lehen esan bezala, eskola adineko populazioa handitzeagatik eta Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Zerbitzuaren Kali-tatea Hobetzeko Ituna, 2001eko maiatzaren 31koa bete beharagatik handitu da, bere indarral-dian. Kreditu handitze hori ez da inolaz aurrekontu aldaketatzat hartuko Nafarroako Ogasun Publiko-ari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko Foru Legeak agintzen duenari dagokionez.

III. TITULUA

Irakaskuntza Itunduaren Arloan Pausoz Pauso Kalitatea eta Lan Baldintzak Hobetzeko Akordioa betetzeko neurriak

8. artikulua. Ikastetxe itunduak eta diruz lagunduetarako laguntza neurriak.

1. Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 lege Organikoko 49. arti-kuluko bigarren eta hirugarren idatz-zatiek agin-zen dutenaren arabera, Eskola unitate bakoitzeko diru moduluaren kopurua, II. Eranskinean finka-tzen dena da 2002. urterako, Ikastetxe itunduak eta diruz lagunduak mantentzeko fondo publikoak banatzeko.

Nafarroako Gobernuak, 2000ko abenduaren 20ko Akordioak indardun dirauen artean, gaurko-tuko ditu II. Eranskineko diru moduluak, eta bai modulu horiek aplikatu behar diren epeak ere, eta irakaskuntza pribaturako kontusailen kreditua handituko ere, akordioa bete ahal izateko behar den neurrian. Kreditu handitze hori ez da inolaz aurrekontu aldaketatzat hartuko Nafarroako Oga-sun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko Foru Legeak agintzen duenari dago-kionez.

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari irakasle/unitate itundu erlazioak finkatzeko, itunpeko maila bakoitzean indarra duen ikasketa plana emateko behar direnak, eta

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du zilegi izanen bere gain hartzea soldata igoerak edo bestelako igoerak (hala nola zuzendaritzako kargudun izatearen edo antzinatasunaren osaga-riak), baldin eta igoera horiek II. eranskineko diru moduluetan ezartzen denetik gora pasatzea ekar-tzen badute.

Irakasleen soldatei buruzko aurreikuspenek, II. Eranskinean ageri direnek, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute ondorio, irakaskuntza Pribatuaren kasuan kasuko hitzarmenak noiz sinatzen diren kontuan hartu gabe, eta Adminis-trazioak zilegi izanen du konturako paguak onar-tzea, aurretik eta espresuki erakunde patronal guztiek eskaera hori bera egin badute, eta sindi-katuei kontsulta eginik, kasuko hitzarmena sina-tzen den momentura arte. Ulertuko da konturako pagu horiek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izan-n dutela ondorio.

“Bestelako gastuak” eta, hala bide denean, langile osagarrietzako moduluaren osagaiak, II. Eranskinean sartuta dagoenak, 2002ko urtarrila-ren 1etik aurrera izanen du ondorio.

Irakasleen soldatetarako ezarritako kopuruak (karga sozialak barne) zuzenean pagatuko ditu Administrazioak pagu delegatua eginaz, irakasle-en eta kasuko ikastetxearen titularraren artean dagoen lan harremana ezertan galarazi gabe.

“Bestelako gastuak” direlakoei dagozkien kopuruak ikastetxe itunduei pagatuko zaizkie, eta horiek ikasturte bakoitza amaitzean justifikatu beharko dute nola aplikatu diren.

“Gastu aldakorak” osatzen dituzten kopuruak banatzeko, Hitzarmenen araubidea arautzen duten xedapenek agintzen dutena hartuko da ain-tzat.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behin-behinekoz zehaztuko ditu 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan berritik ezarri beharreko erdi nahiz goi mailako heziketa zikloetako diru moduluak, II. Eranskinean sartuta ez badaude, eta zilegi izanen du behin-behinekoz aldatzea eranskin horretan sartuta ez daudenak 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteak hasten direnean, haien ezarpena nola izan den ikusta.

3. Ikastetxe batek Derrigorrezko Bigarren Hez-kuntzaren lehen eta bigarren zikloa, batxilergoa, erdi nahiz goi mailako heziketa zikloak eta berme sozialeko programak ezarri baditu, behar adinako finantzazioa emanen zaio hezkuntza orientazioko eta orientazio psikopedagogiko nahiz profesiona-leko zerbitzu espezializatuak, Hezkuntza Sistema-ren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko

1/1990 Legeko hirugarren xedapen gehigarriko 3 e) idatz-zatian aipatzen direnak, berdintzeko. Dotazio hori honako proportzioan eginen da: Egin-kizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lan egun oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lan egun horren finantzazioa jasotzeko maila horretan itunduta dauzkaten unitate kopuruaren arabera.

4. Banakako hitzarmen partzialen araubideari esleitzen zaizkion Fondo publikoetatik heldu den finantzazioa osatzeko, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko maila ez nahitaezkoetarako ezarria, eta irakaskuntza araturako baizik ez, ikasle bakoitzari hilean 22,92 euro kobratuko zaizkio hamar hilabetez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik hasi eta ekainaren 30eraino, eta irailaren 1etik hasi eta abenduaren 31raino.

Ikastetxeek ikasleei dirukopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuratzen duten finantzazioa diru moduluko "bestelako gastuak" deitu kapitularako erabiliko da, eta beraz Administrazioak "bestelako gastuak" delako atalaren kopurua osatzeko falta den kopurua baizik ez du pagatuko.

5. Goi mailako Heziketa Zikloen banakako hitzarmena partziala izanen da. Horrela, banakako hitzarmen partzialen araubideari esleitzen zaizkion Fondo publikoetatik heldu den finantzazioa osatzeko, Goi Mailako Heziketa Zikloko maila ez nahitaezkoetarako ezarria, eta irakaskuntza araturako baizik ez, ikasle bakoitzari hilean 37,42 euro kobratuko zaizkio hamar hilabetez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik hasi eta ekainaren 30eraino, eta irailaren 1etik hasi eta abenduaren 31raino; salbu eta Lantokietako Lanbide Heziketa beste osagairik ez duen kurtso batean matrikulatu diren ikasleen kasuan, horiek hilean 32,45 euro pagatuko baitute Lantokietako Lanbide Heziketako 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan irauten duen hiru hiletan.

Goi mailako Heziketa Zikloetara sartzeko prestatara kurtsoaren banakako hitzarmena partziala izanen da. Horrela, banakako hitzarmen partzialen araubideari esleitzen zaizkion Fondo publikoetatik heldu den finantzazioa osatzeko, Goi mailako Heziketa Zikloetara sartzeko prestatara kurtsoaren maila ez nahitaezkoetarako ezarria, eta irakaskuntza araturako baizik ez, ikasle bakoitzari hilean 26,53 euro kobratuko zaizkio hamar hilabetez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik hasi eta ekainaren 30eraino, eta irailaren 1etik hasi eta abenduaren 31raino.

Ikastetxeek ikasleei dirukopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuratzen duten finantzazioa

diru moduluko "bestelako gastuak" deitu kapitularako erabiliko da, eta beraz Administrazioak "bestelako gastuak" delako atalaren kopurua osatzeko falta den kopurua baizik ez du pagatuko.

6. Ikastetxeetako Partehartze, Ebaluazio eta Gobernamentuaren buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoko zazpigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Zuzendaritza lanari laguntzeko finantzazio bat ezarri behar da; horren ondorioz, II. eranskinean finkatzen diren hezkuntza maila eta modalitate desberdinetako eskola unitate bakoitzeko diru modulu guztiek, salbu eta Lantokietako prestakuntzarako unitateak, urtean 214,82 euroko kopuru bat erantsirik daukate "bestelako gastuak" atalean zuzendaritza eta/edo pedagogia laneko beste kargu batzuk finantzatzeko, zuzendaritzagatiko osagarriaz gain, hura "gastu aldakorrak" delako atalean sartuta baitago lehen bezala.

7. 2002ko abenduaren 1etik aurrera, II. Eranskinean Goi mailako Heziketa Zikloko bigarren kurtsoetarako (salbu eta lantokietako prestakuntza hutsa bada) ezartzen diren diru moduluak 0,08 batean gehituko dute irakasle titularren ratioa, eta beraz irakasleen soldatarako ezarritako dagoen kopuruari (karga sozialak barne), eta gastu aldakorretarako ezarritakoari 2.000,97 euro eta 246,46 euro eransten zaizkie, hurrenez hurren.

8. Haur hezkuntza eta Derrigorrezko Irakaskuntzetako bigarren zikloan itundutako ikastetxe batek hezkuntza premia bereziak dituzten edo egoera sozial defaboratuetan dauden ikasleei kontu egiten badie, emendiozko langileak eta baliabideak izanen dituzte, hala nola ikasle horiei kontu egiteko laguntzako irakasleak, logopedia zerbitzuak, zaindariak eta bestelako langile osagarriak.

Baliabide horiek esleitzeko, deialdi publikoa eginen da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsia, behar diren txosten teknikoak eskuratuta.

9. artikulua. Kreditu gehigarri bat ematen da, 5.194.644 eurokoa, 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko kontusail haietatik hartzeko:

410003-41610-4811-422100, "Haur Hezkuntzako 2. Zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	607.611 euro
410003-41610-4811-422200, "Lehen Hezkuntzako 2. Zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	1.253.254 euro
410003-41610-4811-422202, "Eskolatu gabeko haurrentzako ikastetxeen dirulaguntza: Ilundain etxaldea, Etxabakoitz lantegia eta besteak"	96.553 euro

410003-41610-4811-422300, "Batxilergoko irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntza"	395.189 euro
410003-41610-4811-422500, "Hezkuntza Bereziko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	397.281 euro
410003-41610-4811-422700, "Erdi Mailako Heziketa Zikloetako irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	61.633 euro
410003-41610-4811-422800, "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. Zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	1.139.528 euro
410003-41610-4811-422802, "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	1.243.595 euro

10. artikulua. Kreditu gehigarri hori 2001. urte-
tik 2002.era luzatutako aurrekontuko kontusail
hauetatik finantzatu da::

620001-61100-6010-513409, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	3.008.917 euro
410001-41120-6059-424104, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	1.502.520 euro
410000-41130-4400-424102, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	82.195 euro
410001-41120-7810-424100, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	180.304 euro
451000-42120-7600-452103, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	300.506 euro
451000-42100-7709-456100, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	120.202 euro

IV. TITULUA

Beste hezkuntza neurri batzuk

11. artikulua. Toki entitateen menpeko irakas-
leak nola transferitu.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gober-
nuari, kasuko entitateekin hala adostuta Nafarroa-
ko Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan
honako irakasleak kide du ditzan, dela funtzionario
gisa dela lan kontratupeko langile finko gisa: Iru-
ñeko Udalaren ikastoletan eta Lanbide Tailerretan
aritzen diren irakasle funtzionarioak eta lan kon-
tratupeko irakasle finkoak, eta beste toki entitate
baten menpe Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkun-
tzan eta lanbide tailerretan aritzen diren beste ira-
kasle funtzionarioak eta lan kontratupeko irakasle
finkoak.

2. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gober-
nuari kasuko kontusailetan behar diren kredituak
gertutzeko aipatu langile horien gastuak berdint-
zeko. Gehikuntza hori ez da inolaz ere hartuko

aurrekontu aldaketatzat, Nafarroako Ogasun
Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko
Foru Legeak agintzen duenari dagokionez.

3. Baimena ematen zaio Nafarroako Gober-
nuari behar diren tramiteak egiteko irakasle fun-
tzionario horiek Hezkuntza Sistemaren Antola-
mentu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Legeak
aipatzen dituen irakaskuntzak eman behar dituz-
ten irakasleen kidegoetan sartzeko.

12. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko
Administrazioaren zerbitzuko irakasleentzako kon-
pentsazioak.

1. Maisutza diplomako praktikak ematen dituz-
ten ikastetxeetako maisu-maistrek 30 euro jasoko
dituzte tutoretzapeko ikasleko eta kurtsoko.

2. Irakaskuntza ikerketako lanak egiteko, curri-
culuma berrikusteko, irakas materiala eta gelako
programazioak sortzeko, hezkuntza sistemaren
errendimendua neurtzeko ebaluazio probak eta
eite bereko besteak osatzeko Hezkuntza eta Kul-
tura Departamentuak izendatzen dituen irakasle-
ek, beti ere baldin lan horiek ez badakarte berekin
irakasle horien lanpostuari dagozkion zereginetan
aritu beharrik eta beren lanpostuko eginkizuneta-
tik liberatzen ez badituzte, honako konpentsazio-
ak jasoko dituzte Hezkuntza Zuzendaritza Nagu-
siak eginkizun den lanari eta bertan eman
beharreko gehieneko ordu kopuruari baimena
eman ondoren:

A mailako irakasleak: 17,44 euro lan orduko.

B mailako irakasleak: 14,39 euro lan orduko.

3. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaita-
sun Agiria (EGA) emateko epaimahaietan eta
izangaiak hautatzeko organoetan parte hartzen
duten funtzionario publikoek eta lan kontratupeko-
ek, irakasleak hautatzeko epaimahaietan parte
hartzeagatik tokatzen diren konpentsazioak jaso-
ko dituzte.

4. Unibertsitatean sartzeko Proban Batxilergo-
ko irakasgaien koordinatzaile aritzen direnek kur-
tsoko 1.500 euroko konpentsazioa jasoko dute.

5. Aurreko ataletan aipatu diren dirutzak urtero
berrituko dira Nafarroako Administrazio Publikoen
zerbitzuko langile funtzionario eta estatutupekoen
soldatetarako ezartzen den gehikuntzarekin.

13. artikulua. Irakaskuntza Itunduko irakasle-
en artean lan orduak berdintzeko prozesu bat,
astean bi ordu kendu arte, eta hezkuntzaren kali-
tate pausoz pauso hobetzeko prozesu bat hastea.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du etorkizuneko ekitaldietarako gastu konpromisoak hartzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko Foru Legeak baimentzen duenaz haratago, 2008. urtera arte, urte horiek ere barne, hezkuntza zerbitzua hobetzeko ahaleginaren barrenean, pagu delegatuan sartuta dauden irakaskuntza itunduko irakasleen lan baldintzak hobetzea eta ikastetxe itunduetako beste gastuetan laguntzea helburu, beti ere aurretik irakaskuntza pribatu itunduko sektoreko sindikatu eta enpresa erakunde gehienek horretarako akordio bat sinatzen badute.

Prozesu hori hasiera batez 2002/2003 ikasturtetik 2007/2008 ikasturterainoko epe bat hartzen du, bi ikasturteok ere barne direla, eta haren helburua izanen litzateke asteko irakaslan bi ordutan murriztea lanaldi osoan ari diren irakasleentzat eta ikastetxe itunduetako "bestelako gastuak" direlakoetarako dirutza handitzea. Prozesu hori eskola orduen kopuruan diferentzia handienak izaten diren hezkuntza mailetan hasiko da.

2. Nafarroako Gobernuak gehienez honako dirutzen konpromisoak hartu ahal izanen du hurrengo ekitaldietako bakoitzean, 2002ko euro konstanteetan:

2002. urtea: 317.416 euro.

2003. urtea: 1.402.783 euro.

2004. urtea: 2.578.658 euro.

2005. urtea: 3.636.879 euro.

2006. urtea: 5.021.032 euro.

2007. urtea: 5.937.569 euro.

2008. urtea: 6.671.426 euro.

2003. urteko kopurua, 2000ko abenduaren 20ko "Irakaskuntza Itunduaren Arloan Pausoz Pauso Kalitatea eta Lan Baldintzak Hobetzeko Akordioa" delakoan dagoeneko itundu den soldata igoeran gaurkotuko da.

3. Behin irakaskuntza pribatu itunduaren sektoreko enpresa erakundeek eta sindikatuak akordio hori, artikulua honetako lehenbiziko atalean aipatu dena, lortu ondoren, eta beti ere bigarren atalean gertutu diren dirutzen arabera bada, ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, akordioari aurretik onespena emanik, betetzeko aukera ematen duten hezkuntza hitzarmenen diru modulu berriak aldatu edo zehazteko.

4. Kreditu berezi bat ematen da, 317.416 eurokoa, 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko 410003-41610-4811-422000, "2002-2008 urte-

etako ikastetxe itunduaren sektoreko Akordioarako dirulaguntza" delako kontusail berriari gehitzekoa. Gehigarri hori 620001-61100-6010-513409 "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak" delako kontusailetik hartuko da.

5. 2000ko abenduaren hogeiko akordioaren indarraldia bukatu delarik, Nafarroako Gobernuak aztertu egingen du, aurrekontuan erabilgai dagoen diruaren arabera, zer neurri eta zer beste kreditu behar diren irakaskuntza pribatu itunduaren sektoreak (sindikatu eta enpresa erakundeen ordezkariak) irakaskuntzaren kalitate hobetzeko akordio berria egin dezaten, zeinean soldatak berdintzeko prozesuan aurrera egingen baita harik eta pagu delegatuan sartutako ikastetxe itunduetako irakasleen soldata Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko irakasleen oinarrizko soldata gehi berariazko gehigarriaren ehuneko laurogeita hamabostera iritsi arte, kasuan kasuko hezkuntza eta soldata mailaren arabera.

14. artikulua. Lanerako Prestatzeko eta Eten-gabeko Lanbide Heziketa.

1. Bigarren Hezkuntzako irakasle kidegoen eta Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetakoek, berariazko Lanbide Heziketan beren lanarekin segitzen badute ere, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko hamargarren xedapen gehigarriko 1. Idatz-zatiak agintzen duenaren arabera, eta kidego horietako irakasleei irakaste gaitasuna esleitzen dieten oinarrizko arauak agintzen dutenarekin bat, zilegi izanen dute Lanerako Prestatzeko eta Eten-gabeko Lanbide Heziketan ere aritztea zein bere ikasketa eta lanbidearen arabera. Irakasle horiek zilegi izanen dute beren lanposturako ezarrita dagoen lanaldia eta lan orduak osatzeko hezkuntza modalitate horiek ematea. Zilegi izanen dute, halaber, gehienez urtean 150 ordu ematea Lanerako Prestatzeko eta Eten-gabeko Lanbide Heziketan Lanbide Heziketa arautuan duten dedikazioak beren lanaldi eta lanordu guztiak hartzen badizkie.

2. Aurreko puntuan ezarri dena Lanbide Heziketa arautuan behin-behineko langile gisa irakaslanen ari diren irakasleei aplikatuko zaie.

3. Lanerako Prestatzeko eta Eten-gabeko Lanbide Heziketan lan egitea interes publikokotzat hartuko da Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko araudian agintzen denari dagokionez.

4. Erregelamendu bidez finkatuko da zer prozeduraren bidez izendatu edo kontratatuko diren Lanerako Prestatzeko eta Eten-gabeko Lanbide

Heziketan arituko diren irakasleak, eta bai zer soldata eta beste alderdi beharko diren artikuluko honek agintzen duena bete dadin.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

2002.- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioak, Bigarren Hezkuntzako katedradun izaera dutenak; Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Arte Plastiko eta Diseinu katedradun izaera dutenak; Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun izaera dutenak, eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	7.593,34	7.677,24	7.677,24	7.677,24	7.740,18	7.740,18	7.740,18	7.813,59
Adina 63 urte	7.824,08	7.824,08	7.824,08	7.897,48	7.897,48	7.897,48	7.970,90	8.243,11
Adina 62 urte	7.970,90	7.970,90	8.054,82	8.054,82	8.348,48	8.904,35	9.565,09	10.341,20
Adina 61 urte	8.128,23	8.191,16	8.558,23	9.156,05	9.858,75	10.687,32	11.641,71	12.690,52
Adina 60 urte	8.526,78	9.124,59	9.816,80	10.634,86	11.589,29	12.711,50	13.959,57	13.959,57

2002.- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko, Musika eta Eszena Arteetako irakasleen kidegoko, Arte Plastiko eta Diseinu irakasleen kidegoko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	7.655,07	7.739,66	7.739,66	7.739,66	7.803,10	7.803,10	7.803,10	7.877,12
Adina 63 urte	7.887,69	7.887,69	7.887,69	7.961,70	7.961,70	7.961,70	8.035,72	8.035,72
Adina 62 urte	8.035,72	8.035,72	8.120,30	8.120,30	8.120,30	8.204,88	8.511,51	9.103,62
Adina 61 urte	8.194,31	8.278,90	8.278,90	8.278,90	8.744,12	9.367,95	10.097,51	10.953,95
Adina 60 urte	8.278,90	8.278,90	8.712,41	9.325,66	10.055,21	10.901,08	11.894,97	13.068,61

2002.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastiko eta Diseinuko Lantegi maisu-maistren kidegoko funtzionarioak

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	6.366,58	6.422,33	6.422,33	6.422,33	6.468,81	6.468,81	6.468,81	6.524,57
Adina 63 urte	6.533,88	6.533,88	6.533,88	6.580,35	6.580,35	6.580,35	6.645,40	6.645,40
Adina 62 urte	6.645,40	6.645,40	6.701,17	6.701,17	6.701,17	7.054,36	7.481,89	8.002,36
Adina 61 urte	6.756,94	6.812,70	6.812,70	7.212,35	7.686,37	8.234,73	8.876,03	9.628,87
Adina 60 urte	6.812,70	7.193,77	7.658,49	8.197,55	8.838,85	9.582,39	10.456,07	11.487,72

2002.- Maisu-Maistren kidegoko funtzionarioak

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	6.344,41	6.393,43	6.393,43	6.393,43	6.452,28	6.452,28	6.452,28	6.511,10
Adina 63 urte	6.893,54	6.893,54	6.893,54	6.942,56	6.942,56	6.942,56	7.011,20	7.011,20
Adina 62 urte	7.011,20	7.011,20	7.070,05	7.070,05	7.070,05	7.138,69	7.403,44	7.854,51
Adina 61 urte	7.128,87	7.187,71	7.187,71	7.187,71	7.570,14	8.060,44	8.629,17	9.305,78
Adina 60 urte	7.187,71	7.187,71	7.550,53	8.040,82	8.599,76	9.266,56	10.041,22	10.953,18

II. ERANSKINA

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAKORRAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,12		31.717,12	75,50	3.960,02	9,43	6.332,43	15,07	42.009,57
LEHEN HEZKUNTZA	1,28		36.248,14	74,58	5.619,81	11,56	6.732,05	13,85	48.600,00
D.B.H., LEHEN ZIKLOA	1,52		43.970,13	75,84	5.967,73	10,29	8.039,83	13,87	57.977,69
D.B.H., BIGARREN ZIKLOA	1,59		52.411,97	77,50	6.155,25	9,10	9.064,51	13,40	67.631,73
D.B.H., CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA	0,68	0,6	39.990,70	74,03	4.961,64	9,19	9.064,51	16,78	54.016,85
D.B.H., CURRICULUM EGOKITUKO UNITATEA	0,88	0,6	46.583,40	76,10	5.565,95	9,09	9.064,51	14,81	61.213,86
BATXILLERGOA	1,52		50.104,52	75,85	6.890,18	10,43	9.064,51	13,72	66.059,21
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA	1,44		47.467,44	75,57	6.277,33	9,99	9.064,51	14,43	62.809,28

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	LANGILE OSAG.	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA PSIKIKOAK	1		28.318,86	45,34	3.092,88	4,95	6.732,05	10,78	24.319,23	38,93	62.463,02
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA AUTISTAK	1		28.318,86	49,30	3.092,88	5,39	6.732,44	11,72	19.292,07	33,59	57.436,25
LANBIDE HEZIKETA BEREZIKO HASTAPEN PROGRAMAK	1	1	57.062,90	52,95	6.170,41	5,73	9.064,51	8,41	35.479,41	32,92	107.777,23
BIZITZA HELDURAKO PRESTATZEKO PROGRAMAK	0,64	0,36	28.471,92	49,30	3.255,29	5,64	6.732,44	11,66	19.292,07	33,41	57.751,72

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	1	0,52	0,92	44.090,16	72,24	5.406,85	8,86	11.537,93	18,90	61.034,94
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
2) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA zatikako eskaintza hiru kurtsotan antolatuta	1	0,36	0,32	21.240,48	68,93	2.673,49	8,68	6.901,33	22,40	30.815,30
	2	0,36	0,24	18.897,07	72,80	2.424,41	9,34	4.636,61	17,86	25.958,09
	3	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
3) E.H.Z., ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	1	0,4	1,2	48.336,45	74,72	5.791,50	8,95	10.564,55	16,33	64.692,50
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
4) E.H.Z. SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	1	0,48	1,24	52.145,23	68,14	6.240,85	8,15	18.143,91	23,71	76.529,99
	2	0,84	0,56	44.093,16	65,01	5.585,08	8,23	18.143,91	26,75	67.822,15
5) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETA KO AURREINPRIMAK.	1	0,4	1,12	45.993,03	68,52	5.542,41	8,26	15.587,18	23,22	67.122,62
	2	0,68	0,68	42.334,11	66,95	5.309,15	8,40	15.587,18	24,65	63.230,44
6) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETA KO INPRIMAK.	1	0,56	0,96	46.580,40	66,72	6.514,00	9,33	16.722,77	23,95	69.817,17
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
7) E.H.Z., AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK NEURRIRA EGIN ETA INSTALATZEA	1	0,76	0,92	52.001,39	70,25	6.381,21	8,62	15.641,25	21,13	74.023,85
	2	0,52	0,92	44.090,16	67,69	5.406,85	8,30	15.641,25	24,01	65.138,26
8) E.H.Z., FARMAZIA	1	0,36	1,08	43.502,81	73,53	5.255,47	8,88	10.402,32	17,58	59.160,60
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
9) E.H.Z., EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTRONIKOAK	1	0,64	0,96	49.217,48	69,33	6.018,59	8,48	15.749,40	22,19	70.985,47
	2	0,6	0,76	42.040,44	66,71	5.233,46	8,30	15.749,40	24,99	63.023,30
10) E.H.Z., MEKANIZAZIOA	1	0,56	1,2	53.610,62	70,65	6.441,07	8,49	15.828,72	20,86	75.880,41
	2	0,6	0,8	43.212,14	67,10	5.357,78	8,32	15.828,72	24,58	64.398,64
11) E.H.Z., MERKATARITZA	1	0,96	0,64	50.392,18	74,65	6.321,35	9,36	10.791,67	15,99	67.505,20
	2	1,6		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) G.H.Z., NAZIOARTEKO MERKATARITZA	1	1,08	0,32	44.974,20	74,09	5.812,16	9,57	9.915,63	16,33	60.701,99
	2	1,04	0,2	40.140,55	72,54	5.276,13	9,54	9.915,63	17,92	55.332,31
2) G.H.Z., PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA	1	1,32	0,24	50.542,02	71,21	6.537,43	9,21	13.899,99	19,58	70.979,44
	2	0,68	0,72	43.505,81	69,23	5.433,70	8,65	13.899,99	22,12	62.839,50
3) G.H.Z., ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	1	0,8	0,48	40.431,22	72,09	5.173,61	9,22	10.483,44	18,69	56.088,27
	2	0,68	0,72	41.752,86	72,30	5.514,22	9,55	10.483,44	18,15	57.750,52
4) G.H.Z., OSASUN DOKUMENTAZIOA	1	0,96	0,48	45.705,37	72,03	5.823,17	9,18	11.927,28	18,80	63.455,82
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
5) G.H.Z., HAUR HEZKUNTZA	1	0,64	0,64	46.874,08	74,89	5.769,51	9,22	9.948,08	15,89	62.591,67
	2	1	0	32.963,50	69,54	4.491,02	9,47	9.948,08	20,99	47.402,60
6) G.H.Z., MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA	1	0,96	0,64	50.392,18	75,08	6.321,35	9,42	10.402,32	15,50	67.115,85
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	8,99	1.946,76	17,97	10.832,35
7) G.H.Z., INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA	1	1,2	0,52	54.788,31	75,45	6.922,06	9,53	10.905,23	15,02	72.615,60
	2	0,24	0,44	44.533,68	72,84	5.698,61	9,32	10.905,23	17,84	61.137,52
8) G.H.Z., ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMAK	1	0,96	0,8	55.078,99	74,16	6.819,53	9,18	12.375,03	16,66	74.273,55
	2	1,08	0,32	44.974,19	71,21	5.812,16	9,20	12.375,03	19,59	63.161,38
9) G.H.Z., MEKANIZAZKO BIDEZKO PRODUKZIOA	1	0,6	1	49.070,63	70,94	5.980,73	8,65	14.116,28	20,41	69.167,64
	2	1,2	0,2	45.414,70	69,38	5.925,69	9,05	14.116,28	21,57	65.456,67
10) G.H.Z., GARRAIOAREN KUDEAKETA	1	0,72	0,64	42.480,95	73,57	5.346,99	9,26	9.915,63	17,17	57.743,57
	2	1,24	0	40.874,74	72,66	5.465,37	9,72	9.915,63	17,63	56.255,74
11) G.H.Z., INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA	1	1,16	0,48	52.298,08	75,25	6.635,13	9,55	10.564,55	15,20	69.497,76
	2	0,96	0,36	42.190,28	72,49	5.449,52	9,36	10.564,55	18,15	58.204,35
12) G.H.Z., ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITOLOGIA	1	0,88	0,68	48.926,81	73,24	6.121,12	9,16	11.758,56	17,60	66.806,49
	2	1,08	0	35.600,58	68,23	4.815,78	9,23	11.758,56	22,54	52.174,92
13) G.H.Z., ARTE GRAFIKOETAKO PRODUKZIOA	1	0,36	1,24	48.189,61	69,37	5.753,66	8,28	15.522,29	22,35	69.465,56
	2	0,96	0,44	44.533,68	67,73	5.698,61	8,67	15.522,29	23,61	65.754,58
14) G.H.Z., PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA	1	0,76	0,8	48.486,29	71,07	6.007,58	8,81	13.726,94	20,12	68.220,81
	2	1,4	0	46.148,90	69,93	6.114,93	9,27	13.726,94	20,80	65.990,77

Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko ekainaren 7ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proiektua 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 19ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko ekainaren 20ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 19ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko ekainaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlametu-

ko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundáin Haritz Berri Fundazioarekiko egungo harreman esparrua azter dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundáin Haritz Berri Fundazioarekiko egungo harreman esparrua azter dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Hezkuntza Batzordean presako bidetik eztabaidatu eta bozkatzeko.

"Haritz Berri granja-eskola" elkarteak 1984an sortu zen, 11tik 18 urtera bitarteko gazteen artean droga eta delinkuentziaren arazoei aurre hartzeko hezkuntza proiektu gisa. 1985ean Nafarroako Gobernuak dohainik laga zion elkarteari Aranguren bailarako Ilundain herriko hainbat eraikin eta lurren erabilera, naturaren ikasgela bat sortzeko proiektua gauzatzeko. 1992an Nafarroako Gobernuak gizarte interesekoa zela deklaratu zuen. 2001ean Ilundain Haritz Berri Fundazioa sortu zen, funtsezko oinarria baztertze prozesuan dauden pertsonentzako ikastetxea izatea zuela, iraba-

zi asmorik gabe eta gizartearen zerbitzuan lan egiteko, ikastetxearen sorrera eragin zuen hezkuntza proiektua sendotu eta indartzeko xedearekin.

Ilundain Haritz Berri Fundazioa sendotzen joan da azken urteotan, jokabidearen aldetik arazo larriak dituzten eta familia eta gizarte gatazketan sarturik dauden adingabeak hartzen dituen ikastetxe gisa, eta haren metodologia erreferente bihurtu da beste autonomia erkidego batzuentzat.

Adingabeei buruzko Legeak indarra zuenez geroztik Nafarroako erreferentziako ikastetxea da adingabeen badaezpadako behaketa eta harrerako, baita lege horretan aurreikusirik gizarte eta hezkuntza neurriak betetzeko ere, neurri judizialak betetzen ari diren 16 urtetik beherako hiru gazterekin, epailearen aitzinetik iragan diren 16 urtetik beherako beste hirurekin eta asteburuko neurriak betetzen ari diren 18 urtetik beherako beste bostekin, Fundazioaren eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren artean izenpeturiko hitzarmen baten babesean. Gaur egun, badaezpadako behaketa eta harrerako zerbitzuak bost toki ditu gehi beste bi atsedenerako, eta beste hamar toki hezkuntza eta gizarte neurriak betetzeko; une hauetan toki horien ehuneko ehuna dago beterik.

Nafarroako adingabeen zentroa izanen dena Ilundain kokatuko da eta bitartean beharrezkoa eta premiazkoa da hobekuntzak egitea eta ratioak egokitzea, unitate gehiago eratzea, lansariak pakeatzea, lantalde profesional teknikoak osatzea, eta abar; izan ere, baliabideen eskasia agerikoa da, eta betebeharrei orain arte aurre egin ahal izan zaie irakasleei esker, borondate handikoak eta lanari oso emanak baitira, baina zentrori ailegaten diren arazo mota berriek gaintzen hasirik daude. Parlamentuko taldeek ongi baino hobeki dakigu zein den errealitatea, bitan izan baikara granjan, eta azpiegiturak eta gauzatzen diren pro-

gramak bertatik bertara ezagutzeko aukera eduki dugu.

Premiazkoa da giza baliabideak egokitzea ikastetxean harrera egiten zaien adingabeen kopurua gora doala eta arazoen tipologia –batez ere adimen osasunarekin lotutakoak, eta kontsumoak eta jokabideek eragindako arazoak– zein konplexua den ikusirik. Egiaz ulertezina da orain arte irakasle horien lansariak parekatu ez izana, zentzuzkoena dirudi eta. Gogoratu daiteke hauek arduratzen direla: curriculum egokituko bi unitate (15 urteko 16 ikasle), lanbide hastapeneko programetako bi modulu (16 urteko 25 ikasle), lanbide hastapeneko urte bat egin dute nentzako lantegi eskola (21 gazte), prestakuntzarako eta gizarte eta lanerako gaitzeko laneratzeko eta gizarteratze zentroa (10-20 toki), Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren babespean dauden 15 ikaslerentzako egoitza eta natura ikasgela, Nafarroako ikastetxe asko eta asko jaso dituen.

Une hauetan nabarmendu behar da curriculum egokituko bi unitateen –16 ikaslerekin– berezitasuna aurreikusteko premia, bertan irakasle/ikasle ratioa egokitu beharra dago, eta hirugarren unitate berezi bati baimena ematekoa, lau ikasle, gehieze, hartzeko. Bestalde, lanbide hastapeneko programetan, non 16 ikasle zurgintza eta lorezaintza ikasten ari diren ikasturte bakar batean –hala baitago aurreikusirik, gainerako ikastetxeetan, berriz, bi izaten badira ere–, igeltserotzaren espezialitatea (I eta II) ezartzea gizarte eta hezkuntza mailako neurri egokia izanen litzateke, lanbide hastapen programa berezi gisa, lau ikaslerentzat hori ere. Kasu horretan ere beharrezkoa da ikasturte bakar batetik bitara luzatzea, kontuan harturik oso ikasle bereziak hartzen dituela.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkeztu dugu:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko gehiengo epean berrazter dezan Nafarroako Gobernu departamentuek (Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Lana) Ilundain haritz Berri Fundazioarekin duten harreman esparrua, Ilundain Haritz Berri ikastetxearen berezitasuna eta berariazkotasuna eta bertan, bazterturik dauden adingabeei eta gazteei, gatazka larriak pairatzen dituztenei eta neurri judizialak bete behar dituztenei gizarte, hezkuntza eta lan laguntza emateko gauzatzen dituen programak aurreikusiko dituen itun bakar bat izenpetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du itun horren esparruan honako hauek aintzat har daitezen:

– Curriculum egokituko unitateen egungo bi programetako irakasle/ikasle ratioa, orain dagoena, jaitea eta curriculum egokituko hirugarren unitate bat, berezia eta murriztua, gehitzea.

– Lanbide hastapeneko programa egokituei zurgintza eta lorezaintzako lanbide hastapen bereziaren kalifikazio berria ematea, tokien kopurua gehituta eta ikasturte batetik bitara luzaturik.

– Igeltserotzan (I eta II) programa berriak sartzeko, laneratzeko azkarra ekartzen dutelako, eta asteburuetan eta oporraldietan mantentzeko aukerarekin, neurri judizialak betetzen ari diren adingabeen kasuan.

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri baliabideak egokitzea, bereziki laguntzako lantalde tekniko espezializatua handituz, eta irakasleen eta irakaskuntzakoak ez diren langileen lansariak ikastetxe itunduetako gainerako langileekin parekatzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez duela bere egiten NUPeko Gizarte Kontseiluak hartutako erabakia, Tuteran bertaratzeko ikasketa ofizialak jartzea ez-bidezkotzat jotzen duena

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez duela bere egiten NUPeko

Gizarte Kontseiluak hartutako erabakia, Tuteran bertaratzeko ikasketa ofizialak jartzea ez-bidezkotzat jotzen duena”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, honako mozio hau aurkeztu du Hezkuntza Batzordean tramitatzeko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, zerbitzu publiko bat den aldetik, Nafarroako gizarteari goi mailako hezkuntzaren lana eskaini behar dio, Nafarroa osoko lurralde eta gizarte esparruan aplikaturik. Haren jardueraren onurak ahal den modurik orekatu eta eraginkorrean zabaldu behar dira Foru Komunitateko eskualde guztietara eta Nafarroan sortzen diren desorekak zuzentzeko ahalegina egin behar da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren xedeetako bat gizartearen eskaerak unibertsitate bertara eramatea da, nafar herritarren goi mailako prestakuntzarako premiei erantzuteko. Hori dela-eta, partaidetzarako organo horretan ordezkaturik daude, aniztasunez, Nafarroako gizartearen sektore desberdinak, eta horren erakusgarri dira Nafarroako Parlamentuak izendaturiko bost ordezkariak. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluan dituen ordezkariak Parlamentuak 1995eko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran hautatu zituen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluak 2001eko azaroaren 22an onetsi zuen Unibertsitate Publikoaren plan estrategikoak agerian utzi zuen haren asmoen artean ez zegoela unibertsitateko bertaratze ikasketak Nafarroako Erriberara zabaltzea. Haren arabera, Kanpus

nagusitik urrundutako gune fisiko batean titulazio bakar batzuk sortzeak kanpus nagusiko titulazioen ezaugarri berezietatik gabetuko lituzke ikasketak horiek, multzo osoaren eraginkortasunaren eta ikasketak horiek egitea erabakitzen dutenen kaltean.

Nafarroako Parlamentuak 2002ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran gertatutakoak argi utzi zuen gehiengoaren nahia dela, ia guztiona, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren menpeko bertaratze ikasketak Tuterara zabaltzeko aurrera pausoak ematea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluak, 2002ko maiatzaren 16an egindako Osoko Bilkuran gehiengo hartu zuen erabakian, adierazi zuen, besteak beste, ez zaiola egokia iruditzen Tuteran Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bertaratze ikasketak ofizialak paratzea.

Hori guztia dela-eta, honakoa proposatzen dugu:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentua ez dator bat Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluak 2002ko maiatzaren 16an egindako Osoko Bilkuran harturiko erabakiarekin, bertan adierazten baitu ez zaiola egokia iruditzen Tuteran Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bertaratze ikasketak ofizialak paratzea.

2. Nafarroako Parlamentua ez dator bat Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluan bere ordezkari izateko Nafarroako Parlamentuak hautaturiko kideen irizpide eta botoarekin eta ordezkari horiek premiatzen ditu Nafarroako Parlamentuaren iritzia arabera joka dezaten Foru Komunitatearen etorkizunerako guztion interesekoak diren gaietan, Parlamentuak horien gaineko iritzia adierazirik duenean.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren menpeko bertaratze ikasketak ofizialak Tuteran ezartzeko bidea ireki nahi duela, eta unibertsitate hori premiatzen du nafar herriaren gehiengoaren nahia, Parlamentuko ordezkarien bidez adierazia, bete dezan.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 27an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du legez kanpoko substantzien erabilera dela-eta aurrea hartzeari buruzko beharrizanen azterlan-diagnosia egin dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du legez kanpoko substantzien erabilera dela-eta aurrea hartzeari buruzko beharrizanen azterlan-diagnosia egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko Milagros Rubio Salvatierra andreak, Biltzarreko Erregelamenduararen babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioan adieraziriko egunak ikusirik, Biltzarreko egutegian lehenbailehen tramitatzeko eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Nazioartean hura borrokatzeko itun bat baino gehiago egonagatik ere, legez kanpoko drogen kontsumoa Nafarroan erroturiko fenomeno soziala da, neurri handi edo txikiagoan, gizatalde guztietan. Horrez gain, azken hamabost urteotan zabal-kunde handia izan du, substantzia berriak eta kontsumo eredu berriak agertzean. Funtsean, gazteen arteko kontsumoa da, eta aisiarekin lotua.

Gaurdaino, kalteak gutxitzeko politikak izenekoak programa isolatuak izan dira, legez kanpoko drogen erabilzaile guztietatik batzuegana soilik zuzenduak –bereziki heroina edo/eta kokaina injektatuz kontsumitzen dutenak, askotan droga-zaleak eta gizartetik baztertuak–. Programa mota hori, substantziak kontrolpean ematea eta xiringen trukaketa, adibidez, ezinbestekoak dira, eta

arlo horretan sakontzen jarraitu beharra dago, baina premiazkoa da, halaber, erabilzaile gehienek dituzten arriskuen gaiari heltzea, askotan nahasi egiten baitira alkohol eta zigarreten kontsumoa kannabis, kokaina, sintesiko droga edo aluzinogenoen kontsumoarekin. Nahiz eta, gehienetan, pertsona horiek ez egon drogaren menpe eta, oro har, jasanen dituzten arazoak ohiko osasun zerbitzuetara jotzeko bezain larriak ez izan, osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen eta, okerrenera, bizia galtzea ekar dezaketen arriskuei aurre egin beharko diete. Azken hilabeteotan Malagan gertaturiko kasuak bezalakoak gogoratu ahal ditugu.

Europako Batasuneko herrialde gehienetan aspalditik abian dira arriskuak eta kalteak gutxitzeko programak, kontsumitzaile horiei zuzenduak, substantzien gaineko testak, droga desberdinekin loturiko arriskuei eta horiei aurrea hartzeko moduei buruzko informazioa –materialak editatuz eta tokian tokiko lana eginez–, edo aisiarako lokalak arriskuak orokorrean gutxitzeko irizpideetara egokitzea. Drogen plan nazionalak berak aitortu du behar hori badela eta urteak dira substantzien gaineko informazioa eman eta testak egiteko programa finantzatzen dituela lau autonomia erkidegotan, hala nola Katalunian, Madrilen, Valentzian eta Balear Iretan. Nafarroako zenbait herritan, Iruñean, Tuteran eta Barañainen, besteak beste, arazo horiekiko kezka duten taldeek gauzatu dituzte horrelako esperientziak (in situ), Foru Komunitateko planak berak edo udalek, Barañaingoak, kasu, lagundurik zenbaitetan. Ekimen horiek arrakasta handia eta harrera ona izan dute kontsumitzaileen aldetik eta frogaturik gelditu da horrela badela gizartean informazio eta prebentziorako zerbitzu hauen inguruko egiazko eskaria. Ildo horretan, prebentzioa kontsumoaren prebentzio hutsa izatetik nagusiki kontsumitzaileek pairatzen dituzten egiazko arriskueta jotzera iragan behar da, ahaztu gabe arrisku horiek, askotan, zenbait droga ez-legezkoak izatearen ondorio direla, zuzen edo zeharka.

Santiago Cervera kontseilariak, Foru Komunitateko drogamenpekotasunen planeko "El fenómeno de las drogas de síntesis en Navarra (1997-1999)" izeneko liburuaren hitzaurrean hauxe idatzi zuen: "Erantzukizun publikoaren ikuspegitik, droga bezalako tratamendu batek, XXI. mendean,

eskatzen digu, besteak beste, ongi ezagutzea estrategia egokiak taxutu ahal izateko, kontsumoak, gertatzekotan, ahalik eta kalterik txikiena eragin dezan." Planteamendu horrekin bat, premiazkoa da jakitea zein diren arlo horretan dauden beharrak eta Nafarroan abiaraztea arriskuak eta kalteak gutxitzeko programak, beste toki batzuetan eraginkorrak direla frogaturik baitago. Bartolomé de Carranza Fundazioak 1997an eginiko Nafarroako Gazteriari buruzko IV. Inkestaren arabera, legez kanpoko drogen kontsumoaren % 51,6 asteburuko aisia eta josteta aldi gertatzen da % 25,2 herrietako jaietan, San Ferminetan nabarmen, Nafarroako urteko guztizkoaren % 16,8 hartzen baitu. Horren aurrean, gure iritzia da aurten bertan eta hurrengo urteetan ere prebentzio tresna egokiak ezarri behar direla San Ferminetako festei begira, kontsumo desegokiak direla eta urtero-urtero gertatzen diren arazoak gutxitzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau proposatzen dut batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitateko drogamenpekotasunen planaren esparruan azterlan diagnosi bat egin dezan legez kanpoko substantzien erabilerari, batez ere aisialdian egiten denari, loturiko arriskuen prebentzioaren arloan egun dauden beharren gainean, ondoren Nafarroa osoan abian jartzeko horretarako programak.

2. Era berean, Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitateko drogamenpekotasunen planaren esparruan eta drogen fenomenoarekin loturik dauden gizarte zibileko entitateekin lankidetzan abian jar dezan substantzien gaineko informazioa eman eta testak egiteko plan esperimental bat –erabiltzaile eta erabiltzaile ez direnentzako–, Iruñeko hurrengo San Ferminetako festetan eta hurrengo urteetan, inork nahi ez dituen egoerak ahal den neurrian ebitatzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoa kentzen laguntzeko jarduketa plana egin dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoa kentzen laguntzeko jarduketa plana egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko Milagros Rubio Salvatierra andreak honako mozio hau tramitatzeko eskatzen du.

Zioen azalpena

Iaz amaitu zen Bardeako Komunitateak eta Defentsa Ministerioak Bardeako lurraldean tiro eta bonbardaketa poligono bat ezartzeko 25 urterako izenpetu zuten kontratua.

Nafarroako hainbat erakundek, Parlamentu honek barne, behin eta berriz adierazi izan dute tiro poligonoa eraistearen alde daudela. Espainiako Gobernuak eta Nafarroakoak emandako aitzakia izan da denbora behar zutela tiro poligonoari beste kokaleku bat bilatzeko.

Instalazio mota horren beharraren inguruan bakoitzak izan dezakeen iritzia alde batera utzirik,

Nafarroako eta Estatuko agintariek Nafarroako lurraldeko tiro eta bonbardaketa poligonoa bertatik kentzeko modua kudeatzeko konpromisoa hartu zuten.

Horregatik guztiagatik, honako hauek aurkeztu ditugu eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamenak

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Bardeako tiro poligonoa eraisten laguntzeko jarduketa plan bat prestatu eta Parlamentura igor dezan.

2. Espainiako Gobernuarengana jotzea, informazioa eskatzeko Bardeako tiro poligonoa eraisteko egindakoari buruz eta gai honetan dauzkan planei buruz.

3. Parlamentu honen jarrera Bardeako tiro poligonoa eraistearen aldekoa dela berrestea eta Espainiako Gobernua, Nafarroakoa eta Bardeako Komunitatea premiatzea behar diren urratsak eman ditzaten eraispen hori lehenbailehen gauzatzeko eta, betiere, egungo kontratua amaitu aurretik.

4. Onetsitako erabakiak komunikabideei, Espainiako eta Nafarroako gobernuei eta Bardeako Komunitateari jakinaraztea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan osasun arloko genero-desberdintasunei buruz eta horrek familia eta lan bizitza bateragarri egitearekin duen loturari buruz

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan osasun arloko genero-desberdintasunei buruz eta horrek familia eta lan bizitza bateragarri egitearekin duen loturari buruz".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, osasun arloko genero desberdintasunei

buruz, dagokion batzordean eztabaidatu eta ondoren bozkatzeko.

Zioen azalpena

XX. mendeko bigarren erdialdean gertaturiko gizarte iraultza nagusietako bat emakumeen eta gizonen lan egoeraren aldaketa izan da, bai lan merkatuaren osaketaren ondorioz bai batzuek eta besteek etxean dituzten eginkizun eta erantzukizunen inguruan sortu den eztabaidagatik. Emakumeen jomuga nagusi bakarra ez da dagoeneko bikote bizitza, eta lan merkatura ere bideratzen hasi dira. Aldaketa horrek gizartean garrantzizko eraldaketa batzuk ekarri ditu berarekin, eta egokitzapena eskatzen ari da oraintsu arte gizarte bizitza zirrikiturik gabe osatu duten bi arlo nagusietan: soldatapeko lana eta familiako bizitza.

Halere, Nafarroan, Espainian eta Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan ere, emakumea lan merkatuan sartzeak ez du ekarri etxeko lanen banaketa zuzena.

Etxeko lanen gaineko erantzukizuna banatzeaz gain, lana eta familia bateragarri egiteko beste estrategia batzuk dira lanaldi partziala edo gizarte baliabideen erabilera —haurtzaindegia, etxeko laguntza zerbitzuak edo zaharretxeak—.

Testuinguru horretan, alegia, Nafarroako emakumeak lan merkatuan gogoz sartzen ari direne-

an, gizonak oraindik ez dutenean bere gain hartu etxeko lanetan duten erantzukizuna, soldatapeko lana lanaldi osokoa ohi denean, zaharren kopurua goraka doanean eta familiaz arduratzen diren gizarte baliabideak hain gutxi direnean, kezkatze-ko modukoa da lanaren zama gehiegizkoak eta familia eta laneko erantzukizunak bateragarri egiteko zailtasunek emakumezko langileen osasunean izan dezaketen eragina.

Emakumeen bizi itxaropena gizonezkoena baino luzeagoa bada ere, haien osasun egoera okerragoa da. Batzuetan bi sexuen arteko desberdintasun biologikoei, osasun zerbitzuak erabiltzeko molde desberdinei edo osasun arazoak adierazteko moduei egotzi zaie paradoxa hori, baina gero eta argiago dago emakumeen osasun egoera okerragoa zor zaiola, gehien bat, emakumeek gizartean betetzen duen paperari, sexuak ezarria eta haientzat kaltegarriagoa dena. Berriki egindako azterlan batzuek zalantzan jarri dute emakumeen gaixotzeko joera gehiegizkoaren unibertsaltasun itxurazkoa eta hipotesi bat sendotzen dute, alegia, badela loturarik gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen eta gure esku-hartzearen xede izan daitezkeen gizarte testuinguru batzuen artean. Antzeman ahal izan denez, osasun arloan generoak eragindako desberdintasunen norabidea eta neurria aldatzen dira aztertutako arazoaren edo bizitza zikloko fasearen arabera, generoko desberdintasunen neurria aldatzen dela herrialdetik herrialdera eta batzuetan desberdintasunok ez dira agertu ere egiten.

Gizon eta emakumeen osasunean eragiten duten faktore sozialak hainbat ikuspegitatik aztertu dira. Lehendabizikoen kasuan, ikerketaren xedea gizarte klasearekin lotutako desberdintasunak izan dira, eta emakumezkoen kasuan, aldiz, azterketa oinarritu da

betetzen den paperak (emaztea, ama, langilea) garrantzi handiena hartzen duen esparruan, zeinean familiako paperak nagusizat eta lana papera osagarritzat hartu baita. Ildo horretan,

azterlan askotan agerian gelditu da lana duten emakumeek osasun egoera hobea izaten dutela etxeko andreen aldean, eta papera desberdinak betetzeak, ongizaterako iturri alternatibo gisa, onurak izan ditzakeela ulertu da. Nolanahi ere, arrazoizkoa dirudi pentsatzeak azterlanaren ondorioa ezin dela mugatu esatera emakumeen osasuna hobetzeko zeregin gehiago ematea aski dela.

Emakumeen osasun egoerari buruzko azterlan batean paperen esparrua nagusi izatea ez da bat heldu familiako paperei eta gizasemeen osasunean duten eragin eskasari egiten zaion arreta urriarekin, bai eta familiako ardurak oso modu desberdinean banatzeik heldu diren genero desberdintasunei ere. Bestalde, argi dago klase desberdintasunek zerikusia dutela osasunarekin, bai gizonezkoen kasuan bai emakumezkoenean, eta beraz osasunean eragiten duten faktore sozialak aztertzean bi ardatz horiek hartu beharko lirake aintzat: generoa eta gizarte klasea.

Beraz, hauxe da gure galdera: Nafarroan, lana eta familiako ardurak dituzten emakumeen osasun egoera papera berdina betetzen dituzten gizonena baino okerragoa al da? Norainoko lotura dago lana eta familiako bizitza bateragarri egiteko zailtasunen eta osasun egoeraren artean? Genero desberdintasunik al dago? Egoera gizarte klasearen araberkoa al da? Desberdina al da kultur ingurunearen arabera?

Hori dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako hau aurkeztu du:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, aurretik, gai honen inguruan: "genero desberdintasunak osasunean eta lana eta familiako bizitza bateragarri egitearekin duten lotura".

Iruñean, 2002ko maiatzaren 30ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat instalatzeko prozedurak geraraz ditzala

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Fustiñanan industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentro bat instalatzeko prozedurak geraraz ditzala".

Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinako krisia dela-eta zenbait neurri har ditzan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinako krisia dela-eta zenbait neurri har ditzan".

Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun

zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gudetan adingabeak erabiltzea salatzen du

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gudetan adingabeak erabiltzea salatzen du".

Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2002ko martxo-

aren 18ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da langabeziaren ondoriozko babesa eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan

OSOKO BILKURAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko ekainaren 3an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da langabeziaren ondoriozko babesa eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan". Mozio hau Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzorde-

an izapidetu behar zen eta Osoko Bilkuran izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2002ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak
Helbidea
Telefonoa *Hiria*
P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	